

1.987

LEITZA '87



*tiburcio donearen festak
abuztuak 9-15*

PLAZAOLA



AGURRA

beste aldi batez prestatu gara gure herriko pestak ospatzeko, nola gu
ala besteak alaitasun eta umore onarekin goatzeko asmo
osasungarriarekin, alde batera utzirik gure betiko lanak, kezkak eta
borrokak. Bidea emanez alaitasuna, hospitalitate eta prestutasunari,
aspaldilo leitzarren izaerari eutsiaz.

Gure nahia litzateke elkartasuna eta adimena herri guziaren mailan
nagusi izatea, gure euskal kidetasunari eutsi eta sendotzeko.
Jai zoriontsu batzuk opa dizkizuegu leitzar eta bisitari guztiei.


UDALETXEAK



PESTETAKO 1.987 EGITARAUA

Leitzako Udalak Aurrera Kirol
Elkartearen laguntzaz 1.987eko
Abuztuak 9, 10, 11, 12, 13, 14
eta 15ean Tiburtzio Donearen
ohoretan eratutako festen
egitaraua.

Programa de festejos
organizados por el
Ayuntamiento de Leitza, en
colaboración con el C.D.
AURRERA, en honor de su
patrono San Tiburcio y que
tendrán lugar los días 9, 10, 11,
12, 13, 14 y 15 del mes de Agosto
de 1987.



IGANDEA

DOMINGO

ABUZZTUA
AGOSTO

2

Pestetako egitarauaren banaketa eginen da. Leitzako gazteak eskean ibiliko dira etxez-etxe soinua joaz. (Gogoan izan dirua kaxa giltzatua dutenei bakarrik eman daitekela). **Arratsaldeko 5etan:** Artzai zakur lehiaketa.

Arratsaldeko 7etan: Txistulariekin dantzaldia plazan.

Gaueko 12etan: AURRERAK eratutako atxaureen XIV. lehiaketa, Amazabal Pilotalekuan, EGAN taldearekin.

Se efectuará el reparto de programas a cargo de los jóvenes del pueblo acompañados de música.

(Solamente se debe entregar el dinero a aquellos que vayan provistos de caja precintada).

5 de la tarde: Campeonato Comarcal de Perros de Pastor.

7 de la tarde: Txistularis en la plaza.

12 de la noche: XIV Concurso de disfraces organizado por el C.D. AURRERA y amenizado por el grupo EGAN.

LARUNBATA

SABADO

ABUZZTUA
AGOSTO

8

Gabeko 12etan: Rock jaialdia, Amazabal pilotalekuan.

Oharra: Parte hartuko duten taldeen berri emango da, txartelen bidez.

12 de la noche: Festival Rock, en el frontón Amazabal.

Aviso: Previamente se informará, mediante carteles, sobre los grupos participantes.



9

**ABUZZTUA
AGOSTO**

IGANDEA

DOMINGO

«UMEEN EGUNA»

Goizeko 8etan: Diana.
Goizeko 9etan: Zezenak.
Goizeko 10'30etan: Meza Nagusia, Korporazioa dantzari ttikiekin batera joanen delarik.
Goizeko 11,30etan: Umeentzat jokoak. Ondoren Umeen Danborrada.
Arratsaldeko 5,30etan: Umeen zezen festa.
Arratsaldeko 6,30etan: Dantzari ttikien saioa eta ondoren bonba japoniarrak.
Arratsaldeko 7,30etan: Sebastopoleko Titiriteroak.
Arratsaldeko 8etan: Dantzaldia NAYGI taldearekin.
Gabeko 12etan: Berriz dantzaldia NAYGI taldearekin.

«DIA DEL NIÑO»

8 de la mañana: Diana.
9 de la mañana: Embolados para los niños.
10,30 de la mañana: La Corporación, acompañada por los Dantzaris txikis, acudirá a la Misa Mayor.
11,30 de la mañana: Juegos infantiles. A continuación tamborrada infantil.
5,30 de la tarde: Embolados para los niños.
6,30 de la tarde: Actuación de los Dantzaris Txikis y a continuación Bombas japonesas.
7,30 de la tarde: Actuación de los Titiriteros de Sebastopol.
8 de la tarde: Bailables amenizados por la orquesta NAYGI.
12 de la noche: Nueva actuación del grupo NAYGI.



ASTELEHENA

LUNES

ABUZTUA
AGOSTO 10

«PESTA BEZPERA»

Arratsaldeko 6 etan: Ezkila jotzea eta etxafuegoak botatzea pestei hasera emanaz.

Ondoren, kalejirak herrian barrena, txistulariak eta ARTADI txarangarekin.

Arratsaldeko 7,30etan: Dantzaldia GAU-BELA taldearekin.

Gaueko 12etan: Dantzaldia berriz, GAU-BELA taldearekin.


«VISPERA DE FIESTAS»

6 de la tarde: Inicio oficial de las fiestas con repique de campanas y disparo del cohete.

A continuación kalejiras a cargo de los txistularis y charanga ARTADI.

7,30 de la tarde: Bailables amenizados por el grupo GAU-BELA.

12 de la noche: Nueva actuación de GAU-BELA.



11

ABUZZTUA
AGOSTO

ASTEARTEA

MARTES

«TIBURTZIO DONEAREN EGUNA»

Goizeko 7,30etan: Dianak, txistulariek eta ARTADI txarangak joak.

Goizeko 9etan: Entzierroa eta zezenak plazan.

Goizeko 10,30etan: Meza Nagusia, Korporazioa Aurrerako dantzariekin joanen delarik.

Eguerdiko 12etan: AURRERAKO ezpatadantzariak plazan.

Ondoren, pilota partidua plazan:

TAINTA-
MARIEZKURRENA

AIZAGIRRE-
IPARRAGIRREren aurka

Arratsaldeko 5,30etan: Zezenak plazan.

Arratsaldeko 6,30etan: Anjel Alduntzin eta Luis Erbitiri OMENALDIA. Bertan Dantzari adinekoak binaka dantzatuko dute. Parte hartzea libre izanen da.

Arratsaldeko 7,30etan: Dantzaldia GAU-BELA taldearekin.

Gaueko 12etan: Dantzaldia GAU-BELA taldearekin.

«FESTIVIDAD DE SAN TIBURCIO»

7,30 de la mañana: Diana a cargo de los txistularis y la charanga ARTADI.

9 de la mañana: Encierro y embolados en la plaza.

10,30 de la mañana: La Corporación, acompañada por los Dantzaris de AURRERA, acudirá a Misa Mayor.

12 del mediodía: Actuación de los Ezpatadantzaris del C.D. AURRERA.

A continuación partidos de pelota.

5,30 de la tarde: Vaquillas.

6,30 de la tarde: Homenaje a Angel Alduncin y Luis Erviti. Actuarán los dantzaris veteranos del pueblo por parejas. La participación será libre.

7,30 de la tarde: Bailables amenizados por el grupo GAU-BELA.

12 de la noche: Bailables amenizados por el grupo GAU-BELA.



Goizeko 7,30etan: Dianak, txistulari eta ARTADI txarangak joak.

Goizeko 9,30etan: Entzierroa eta zezenak plazan.

Goizeko 11,30etan: Herri Kirolak.

- I. Perurena eta M. Saralegi harrijasotzen.
- Herriko gazteen saioa harrijasotzen, haizkoran eta laisterkan.

Arratsaldeko 5,30etan: Zezenak plazan.

Arratsaldeko 6,30etan:

AURRERAKo Dantzarien saioa plazan.

Ondoren bonba japoniarrak umeentzat.

Arratsaldeko Betan: Dantzaldia EGAN taldearekin.

Gaueko 12etan: Dantzaldia EGAN taldearekin.

7,30 de la mañana: Diana.

9,30 de la mañana: Encierro y vaquillas.

11,30 de la mañana: Deporte rural.

- Actuación de los harrijasotzailes Iñaki Perurena y M. Saralegi.


- A continuación, actuación de un grupo de jóvenes del pueblo en una prueba mixta, que consistirá en levantamiento de piedra, corte de troncos y en correr.

5,30 de la tarde: Vaquillas.

6,30 de la tarde: Dantzaris del C.D. AURRERA y bombas japonesas.

8 de la tarde: Baile a cargo de EGAN en la plaza.

12 de la noche: Bailables a cargo de EGAN.



13 ABUZZTUA
AGOSTO

OSTEGUNA

JUEVES

Goizeko 7,30etan: Diana.
Goizeko 9,30etan: Entzierroa eta zezenak.

Goizeko 11etan:
AURRERA-GURATZ MENDI
VII SARIA 1. mailako ziklista
afizionatuentzat.

Arratsaldeko 5,30etan: Zezenak
plazan.

Arratsaldeko 6,30etan: Leitzako
ingurutxo eta bomba japoniarrak.

Arratsaldeko 7,30etan eta gaueko
12etan: Dantzaldiak JOSELU
ANAIK taldearekin.

7,30 de la mañana: Diana a cargo de
los txistularis.

9,30 de la mañana: Encierro y
vaquillas.

11 de la mañana: VII trofeo
AURRERA-GURATZ MENDI
de Ciclismo para aficionados de 1.^a
categoría.

5,30 de la tarde: Ingurutxo de Leiza
y bombas japonesas.

7,30 de la tarde y a las 12 de la
noche: Bailables a cargo de
JOSELU ANAIK.



Goizeko 7,30etan: Diana.

Goizeko 9,30etan: Entzierroa eta zezanak.

Goizeko 11etan: Bertsolari saioa zinean.

Bertsolariak: LIZASO, MURUA, PEÑAGARIKANO, LOPATEGI.

Eguerdiko 12,30etan: IV. Sagardo Lehiaketa plazan, Leitzako elkarteek antolatua. Sagardoa dohain nahi duen guziarentzat. Aurten, baita ere bakailo tortilla lehiaketa.

Arratsaldeko 5etan: Zezanak.

Arratsaldeko 6etan: Herri Kirolak plazan:

MINDEGIA eta GOIKOETXEA haizkoldariak.

MENDIZABAL eta GARZIARENAren aurka.

Arratsaldeko 8etan eta 12etan: Dantzaldiak AKELARRE taldearekin.

7,30 de la mañana: Diana.

9,30 de la mañana: Encierro y embolados.

11 de la mañana: Bertsolaris en el cine. Participarán LIZASO, MURUA, PEÑAGARIKANO y LOPATEGI.

12,30 del mediodía: IV Concurso de sidras en la plaza organizado por las sociedades y el ayuntamiento de Leiza.

Paralelamente se celebrará un concurso de tortillas de bacalao.

5 de la tarde: Vaquillas.

6 de la tarde: Deporte rural.

Los haizkoldaris

MINDEGIA-GOIKOETXEA

contra

MENDIZABAL-GARZIARENA.

8 y a las 12: Bailables con el grupo AKELARRE.



15 ABUZTUA
AGOSTO

LARUNBATA

SABADO

«EZKONDUEN EGUNA»

Goizeko 7,30etan: Diana.

Goizeko 9,30etan: Entzierroa eta zezenak.

Goizeko 11etan: Adinekoen pilota partidua.

Eguerdiko 12etan: Larbando futbol zelaian, 3.mailako futbol partidua.

TOLOSA C.F. - A.D. SAN JUAN

Arratsaldeko 2,30etan: Aurrerako bazkideen bazkaria elkartean.

Bertsolariak ere izanen dira.

Txartelak, Txoko taberna egongo dira salgai.

Arratsaldeko 6etan: Ezkonduen entzierroa eta zezenak.

Ondoren, ezkonduen ingurutxoa.

Arratsaldean eta gabe:

Dantzaldia UDABERRI taldearekin.

«DIA DE LOS CASADOS»

7,30 de la mañana: Diana.

9,30 de la mañana: Encierro y vaquillas.

11 de la mañana: Partido de pelota de veteranos.

12 del mediodía: En el Larbando, partido de 3.ª división:

TOLOSA C.F. - A.D. SAN JUAN

2,30 de la tarde: Comida de socios en el AURRERA.

(Tickets en el bar Txoko).

6 de la tarde: Encierro de casados y vaquillas.

Tarde y noche: Bailables con el grupo UDABERRI.



OHARRAK

AVISOS



1. INCANSABLES txarangak, egunero, eguerdi, arratsalde eta gabeen herriko bazterrak alaituko ditu.
2. Buruhaundiak eguerdiero aterako dira txarangarekin batera.
3. Udala ez da kargu eginen zezenetan gertatzen diren istripuetaz.
4. Egitaraua, borondatearen truke, udaletxean eta tabernetan zabalduko da.
5. Aurten PELOTA BERRIK antolatutako pilota partidu profesionalen berri ere izango dugu, esku programen bidez, bertan lekua, ordua, e.a. zehaztuz.


1. La charanga INCANSABLES animará el pueblo todos los días de fiestas mañana, tarde y noche.
2. Los cabezudos saldrán todos los días junto con la charanga.
3. El ayuntamiento no se hace cargo de los accidentes que ocurran en las vaquillas.
4. El programa de fiestas se podrá obtener, a cambio de la voluntad, en el ayuntamiento y en los bares.
5. Así mismo se informará debidamente sobre los partidos de pelota profesionales, organizados este año por PELOTA BERRI, mediante los correspondientes programas de mano.



PLAZAOLA

LEITZAKO ALDIZKARIA

10 Zenbakia



EDITORIALA



Fiti-fata, fiti-fata, fiti-fata.....tuuuuuuut!

Heldu dela, heldu dela.....muittu!

Ttirriki-ttarraka, leitze zuloz, leitze zulo, tunelez tunel tuuuuuut!

Hara! Badela, badela X. bagoi bat!

Bertso, txiste, olerki, kantu zahar eta berri.

Halere, ez ote da tren tikiaren antzera motela, traketsa, aitonon
kontuetako gaia?

Ez dadila izan trenbidean atzera gelditzen den lau perrilleko mesille

Gure ustez, Plazaolak ez baitu oraindik jo bere azkeneko txistua,
letzar mordo baten lumetan bizirik dirauen bitartean, behinik behin.

Badila, badila..... muittu ba!

Fiti-fata, MUCHA CARGA, fiti-fata, POCA FUERZA.....fiiiii

Aurtengo honetan parte hartu dutenak:

Aurten ezta falta laguntzaile berririk, baina, halere, hurrengorako
askoz ere gehio izan nahi genuke. Honako hauexek izan dira bere
lumetako tintak gurekin gastatu dituztenak;

IDAZLANAK

Pontxito Iurtia
Astaitz
Mikela Astaitzagakoa
M.^o Jesús Artzikonekoa
Patxi Perurena
Makelex Lizarraga
Pedro Oviedo
Javier Tirapu
Gotzone Sestorain
Garbiñe Sagastibeltza
Rosa Sestorain
Enrique Gómez
Javier Otermin
Mikel Ilarregi
Tere Mariñelarena
«INOR»-EN KIDEAK

ARGAZKIAK

Juan Mari Ulazia
Fermín Erviti
Mikel Ilarregi
Kontxi Zozaya

KOORDINATZAILEAK

Mila Saralegi
Uxue Azpiroz
Javier Aranburu
Antonio Sagastibeltza

IMPRESION

GRAFICAS SAKANA

FOTOCOMPOSICION

COMETIP, S.L.

FOTOMECANICA

ERNIO

Pesta onak bota eta
izan zaitezte Tiburtzio
gabenparranda beran-
duetxearen kide!
(Gehiegi kazkartugabe,
Eh?)

Leitzako Gorabeherak

Berriro ere leitzarrei ederki joan zaigula urtea Plazaola aldizkaria atera gabe. Arazo ekonomikoak, gogo, eza, hau, dela, hura dela eta... Ihauterietan Plazaolarik gabe. Ez baita fundamentua ilargia itzali nahi izan zuen herri bantentzako...

**

«Badiu, badiu» Udal berria. Eta italiarrak baino gutxiago ez izateagatik, «Cicciolinak» eta guzti. Hori bai, gureak beren kartolekin, ez hura bezala, titiak haruntz eta honuntz, Koxmeren oilar gaixoa baino kastigatuagoak...

Badago nahiko lan, egin nahi badute.

**

—Hi, Josetxo, jakin diagu Benidormen frontoi bat irekitzera dihoazela eta hara bidali behar omen haute ETB-rako erreportaiaren bat egin dezaan.

—Horrela ziotek, bai.

—Bada, kontuz ibiltzen al haiz Sida-rekin etab.

—Sida?, niri bost axola, nik beti guardasola erabiltzen diat...

**

Eta Telebistaz ari garenez, hara non gauden larunbat arratsaldean begi-belarri ikusgailuaren aurrean eta hor azaltzen zaigu, dotoreago baino dotore, Fraxku zenaren semea. Pajarita goian, «pajarittoa» behean... Ifar Ameriketako Unibertsitateaz mintzatzen.

Hori da mutilaren erraztasuna. Aliñea pareko lizarrek baino gehiago daki gure ibiltari bakarti honek...

**

—Donostiako Alkate jauna?

—Ni naiz, bai.

—Bada, begira, berez leitzarra bainaiz ere, Donostiara bidali naute lanera eta, hementxe nabil alde-aldeko pisu bat ezin aurkituz. Hain daude garestiak.

—Garestiak?, noski, hemen eliteko jendea behar degu.

Gure leitzarra txunditurik gelditu zen. Ez zekien Tolosako ur «garbietan» sortutako gizontxo hain «elitekoa» izan zitekeenik...



Pozik handiena eman digun berria, Martxoaren 29an jaso genuena izan zen: Patxi Zabaleta euskaltzain izendatua. Hauxe da, besteak beste, niretzako Euskal Herrian lor daitekeen titulurik garrantzitsuenak. Zorionak, Patxi!

**

Patxi Perurena Loiarte berriz, sariak binaka jasotzen hasi zaigu azkenaldi honetan. Aste berean bi sari literario irabazi bait zituen: Nafar Ateneoarena eta Azkueren izena daramana.

...Eta
agian bihar
hil egingen naiz
poemak bizitzeko.

Ez hadi hil, Patxi, gure herri hau go-raino eramango duenen bat behar diagu eta!

**

Hura zen ikara zikiro jatearen egunean eramane genuena! Tolosako bide-tik Amazabal aldera sartu ginen eta, hamarren bat gizon frontoiko paretaren kontra. Adios!, pentsa genuen, gureak egin dik, afusilaketetara bueltatu ote gara?

Iritsi baino lehen, usaiarengatik igarri genuen gertatzen ari zena...

Roca jaunari ere egiten zaiola herri honetan hamaika kompetentzia...

Hau da herri honetan
dugun komeria,
maiz ikusten baitugu
jende pixatia.
Urdaila betetzeko
nahiko mixeria,
hustutzekoan berriz
komun gabezia.

**

Aldiro aipatzen dugula esan dezake norbaitek baina, hara zer aurkitu genuen Atharratzeko edategi batean:

«Super Festival de Force Basque. Tentative de Record par les Champions du Monde

I. PERURENA (Leveur de pierre) et MENDIZABAL (Bûcheron)».

Orain Japoniara eraman behar omen dute, aurrerakoan Ina Peru Txun deitu beharko diogu...

**

Gaztedia «pasatu» egiten dela diote askok. Jakin al duzue iazko Santiburtzioetan parte hartu zuten gazteen kopurua?

27	dantzari
5	soinujole
8	korrikalari
4	pilotari
4	harrijasotzaile-aizkolari
3	artzai
1	bertsolari
80	danborrari
80	abeslari
1	bertso jartzaile
1	futbolari
12	musikari

Guztira 226 leitzar. Hori txirrindulariak eta beste antolatzaileen batzu kontutan eduki gabe. Zein da herri honetan pasatzen dena?



LEIZAKO GORABEHERAK

(Continuación pág. 15)

Eta guzti hori nahikoa ez balitz, 105ek ikasi zuten joan den udan igeri egiten. Lerro hauek idaztean asko dira aurtengorako izena ematen ari direnak. Eske, gure kaleetan dauden putzuekin, gero eta beharrezkoago zaigu horretan saiatzea...

**

Hainbat eta hainbat dira hemen aipatu nahi genituzkeenak...

Astatzagako Mikela: abuztuaren 3an egindako irrati saioaren gatik.

Otin txirrindularia: berriro hasi delako.

Kristobal Irazoki: gatzetxo bertsotxapelketan bigarren gelditu delako.

Periko Zaldua: artista bihurtu zaigulako.

Eta beste asko. Baina oraingoz horrela beharko du. Ea hurrengo ihaute-riak bustiagoak aurkezten zaizkigun eta Plazaola argitaratzen den...

**

Eta bukaerako, Santiburtzioetan lan egiteak ekar dezakeen kaltearen adibide bat:

Santiburtzioak ziren eta Eguerdiko Aresoarraren zai aita-alabak. Iritsi zen autobusa, hartu zituen aitak bi pakete esku bakoitzean eta, 18 udaberritako alaba orpoz-orpo zuelarik, hantxe abiatu ziren etxe aldera.

Halako batean, aita gizaxoari, ttaka, galtzak lurreratu zitzaizkion.

1. Erreakzioa: alabaren aurpegia gorri-gorri jartzen da.

2. Erreakzioa: aitak begiak bal-koietara goratzen ditu.

3. Erreakzioa: Bixente, txeletan harrapatu bait dute, fifu firifu, txistuka hasten da.

4. Erreakzioa: paketeak alabari eman, galtzak jaso, berriro besapean hartu eta, hemen ez da deus pasa.

Badakit bai, irakurle, zerbait jakin nahiko zenukeela. Pista bat emango di- zut: galtzontzilo zuti eta organdiz-koak...

**

BIXENTE

HERRIA HAUEN ESKUETAN DAGO...

Hauteskundeak igaro berriak, nahiko burruka alde guztietatik, promesak, as- moak, mundua aldatu nahi. Leitzan ere Udaletxe berria, planteamentu berriak, gogo haundiak, baina aterako ote dute gure herria dagoen zulotik?... hortxe dago koxka, ikusi behar... Hiru indar politiko ditugu: EUSKO ALKARTASUNA, HERRI BATASUNA eta MILAGROSA TALDEA. Hauek erakutsi ziguten, bere momen- tuan, beraien programa orokorra. Plazaolakook pentsatzen dugu, ez dela momentu txarra talde hauek ideiak eta asmoak (herriari buruz) berriro ere zuei eskeintzea. Eta hau bi galderen bidez bideratu dugu:

1. Zeintzu dira zuen ustetan, Leitzako herriak dituen behar haundienak (urba- nismoa, kultura-kirolak, euskera-Ikastola, gazteak-gaztetxea).

2. Azken urteotan zenbait gauza ez dira lortu edo egin ideiei politikoengatik, protagonismoa edo «pike» pertsonal engatik. Hemendik aurrera zuen jokaera nola- koa izanen da?

Eta hauek dira erantzunak:

HERRI BATASUNA

1. *Urbanismoa*: Hemen bereixketa bat egin dezakegu. Alde batetik NORMA SUBSIDIARIOAK eta LAN KONKRETUAK beste aldetik. Normak hartu eta lehenengo estudio serio bat egin beharko genuke, gure ustez akats batzuk badaudela- ko (puntu zehatz batzuetan). Badira zenbait obra, normetatik kanpo eginak eta oso zailak direnak zuzentzea. Beraz, normak behar diren neurrian berritu, rebisatu, norma zehatz batzuk onartu eta bete arazi herri guztian, espeziazio gabe.

Beste alde batetik, proiektu haundi bat, aho batez erabakia, egin dago. Diputa- zioan oztupoak jartzen hasiak dira, dagoeneko, presupuestoak direla, garestia dela... Gero Diputazioak dituen baremoetan Leiza oso berri behartsua azaltzen da, eta hau aprobetxatuz indar haundi eta presio gogor bat egin behar dugu, ahal den diru gehiena iristeko etaahal den hobekiena egiteko.

Kultura-kirolak: Oso inportantea da zinearen asuntza, hortxe dago eta soluziobi- de bat bilatu behar zaio. Baita Kultur-etxea ere, zer den eta zertarako behar den. Arlo hontan erakundeekin harremanetan sartzeari garrantzizkoa ikusten dugu. Uda- letxeak iniziatiba hori hartu beharko luke, baina beti harreman estuak mantenduz bai Aurrerakin (gehiena egin duena kultur arloan hemen) eta bai beste erakunde guztie- kin.

Kirol munduan, inportanteena Udaletxeak elkarte guztiekin bildu eta planifika- zio orokor bat egin beharko luke, protagonismo osoa elkarrengatik utziz. Programa hontan POLIKIROLDEGIA sartuko litzateke, gehiegi zehaztu gabe, gauza da, «martxan» jartzea.

Euskera-Ikastola: Irakaskuntza mailan, bultzatuko ditugu bai Eskolako Euske- razko Adarra eta bai Ikastola. Azken hau (Ikastola) eztabaida prozesu batean aurkitzen da eta gu prest gaude gurasoek erabakitzen dutena bultzatzeko eta Udala bezala, behar diren jessioak egiteko, baina beti kontutan izanda Udala ez dezakela Ikastola salbatu, batez ere diru arazoengatik.

Hontaz aparte, herri mailan gure jokaera kultur ekintzetan, euskera bultzatzea izanen litzateke, baita laguntza eskeiniz herriko erakunde guztiei: AEK, gaueskola, korrika e. a. Udaletxe mailan sortzen diren lanpostuetarako (idazkari, laguntzaile) euskalduna izatea behartuko genuke, sartzen dena gai izan dadila bai hitzegiteko eta bai idazteko euskeraz.

Herri mailan, bure ustez, lehendabizi Leitzako euskalzale guztiak koordinatu beharko lirateke eta honen ondorioz sortzen den dinamikaren bozeramailea izan beharko luke Udaletxeak.

Gazteak-gaztetxea: Langabezia gazteen artean haundia denez, INEMeko ikasta- roak potentziatu eta gazteen proposamen guztiak bultzatuko genituzke. Gaztetxea- ren eskaera ere badago, lokal batzuk beharrezkoak dira gazteek beraien proposame- nak eta iniziatibak aurrera eramateko. Gaztetxea, kultur-etxetik aparte ikusten dugu (nahiz eta etxe berean kokatu), azken hau zabalagoa delako eta antolaketa aldetik desberkina delako.

2. Gu Udaletxera lana egitera sartu gara. Beste guztiek bezala, gure ideiei politi- koak ditugu eta gai politiko bat azaltzen denean, beldurrik gabe emanen dugu gure eritzia. Honekin ez dugu Udaletxeko lanik oztopotu nahi. Gai batzuk politikoak dira berez (huts hutsik) eta nahiz eta batzuk pentsatu ez direla Udaletxean tratatu behar, guk uste dugu herriko kezkak ere jaso behar dituela (Udala): Gestora, Ikurriña... Beste alde batetik udal batzordeak irekiak izanen dira (gure taldeari dagokionez) indartu beharko direnak Batzarreak arintzeko. Gai arruntak errex erabaki eta gauza serioagoak herria mailan zabaldu eta herri-batzarrak proposatu eztabaidatzeko.

Azken finean, Udala kanpora atera eta jendea Udalara urbildu.

EUSKO ALKARTASUNA

1. Beharrik haundiena *lanpostuarena* da, lantoki aldetik dagoen egoera. Behar bada, Udalak ez dezake gehiegirik egin hon-taz, errekursoak mugaturik dauzkalako. Iniziatiba franko eman dezake, baina soluzio bat zaila da. Egin dezakena, terreno batzuk hartako egokitu (plan parzial bat aspaldi planteatuta dago) ondoren lurraldeak errextasun haundiagokin lortzeko bidean jarri. Lortu daitezken laguntzak lortu (Organismo Ofizialetatik) eta lanpostuak jarri nahi dituzten enpresarioer bideak ireki eta errextu.

Urbanismoa: Hemen «anarkia» batera iritsi gara, nahiko konstruzio «furtivo» eginez eta txabolismoa asko indartuz. Esfuerzo bat egin beharko litzateke herriko itxura hobetzeko, estetika aldetik oso utzia ikusten dugulako (egur pilak, plastikoak, basura...).

Norma Subsidiarioak, berritu egin beharko lirateke eta Leitzako beharretara egokitu. Eraiki behar diren etxe berrieri norma hoiek bete arazi eta aurretik oker eginak daudenak ahal den neurrian zuzendu, nahiz eta hau oso zaila izan.

Saneamenduko proiektua eginga dago Herria txukuntzeko, baina oso garestia da eta gauetik goizera egiteko ez da oso errexia izanen. Diputazioak ez digu eskatutakoa ematen (laguntza gutxi iritsi dira) eta eskatu beharko zaio bere zatia.

Kultura-kirolak: Polideportiboa nahi ta nahiezkua da, instalazioak oso pobreak ditugulako: pilota-lekua, pizsina, futbol zelaia (hau oso mesedegarria). Proiektu bat egin beharko litzateke, behar den bezela planifikatzeko, eta ahal den laguntza gehienak lortuz lehenbaitlehen martxan jarri. Pilota ere promozionatu beharra dago (Pilota lekua dohainik utziz, kobratu gabe) eta bultzatu gazteek aurkezten duten edozein ekintza interesgarri ere.

Bestaldetik Kultur-etxe bat oso interesgarria izanen litzateke, batez ere, gazteek beraien inizatibak jorratu eta aurrera eramateko. Orain dagoen etxe hutsaren bat (medikuarena, zinea) egokitu beharko litzateke hortarako (beti behar diren baldintzak betez eta Udaletxearen laguntza jasoz).

EUSKERA-Ikastola: Euskera, borondate oneko jende gehienaren aldetik, nahiko ongi ikusita dago eta zorionez laguntza franko lortzen ditu hemengo giro hontan. Ikastola, bere egunean, pauso oso inportantea eman zuen euskeraren alde eta lan garrantzitsua egin ere bai. Orain nahiko egoera larrira iritsi da eta hau zenbait sektore aldetik probokatua izan delako (ez dakigu zein interesengatik). Jokaera hau ez zaigu garbia iruditzen eta oso dignidade gutxikoa gainera. Geroztik sortu zen Eskolako Euskerazko Adarra. Guk azken hau bultzatuko genuke, baina Ikastola alde batera utzi gabe (lortu daitezken laguntza guztiak lortuz, ez bait daitezke gastu guztiak gurasoen eskuetan utzi).


Gazteak-Gastetxea: Zurrumurruak entzun arren, ez dugu eskaera hori (gaztetxearena) pertsonalki ezagutzen. Gaztetxe bat ez dauka inork ukatzerik, lehen esan dugun bezela, gazteen inizatiba eta eskaera hoiek aterabide bat behar dutelako, ez lana aldetik bakarra, baita kultur aldetik ere. Ikusi beharko da nolako «enfoque»a eman behar zaion eta nondik atera daitezken errekursoak. Hemen langabezia oso lotura ikusten dugu gazteen egoerarekin eta hasieran eman dugu honen berri.

2. Hau horrela izan da, planteamendu edo proposamen bat aztertu baino lehen, nork eginga zen begiratzeko, eta hau oso negatiboa da Herri mailan funtzionatzeko. Begiratu beharko litzateke ea proposamen hori zuzena den ala ez, eta hauek herria goratzeko balira, nahiz eta protagonismoa talde bati edo besteri eman, oztoporik ez jarri aurrera eramateko. Eta espero dugu disposizio berdina beste alderdiengandik. Guk ez dugu inongo oztoporik jartzeko asmorik, laguntzeko eta babesteko baizik. Orain arte borondate ona ikusten dugu (kontaktoak izan ditugu) eta elkarrekin ongi moldatuz ahal den guztia lortu herriarentzat (dudarik gabe izanen ditugula gure desberdintasunak) baina herriaren alde jotaku behar da, protagonismoak baztertuz.

MILAGROSA TALDEA:

Eskeintza berdina egin genien Udaletxeko talde guztiei, baina honengandik (Milagrosa taldea) ez dugu erantzunik jaso.

PLAZAOLA.



Chimeneas GAZTELU


Sistemas de

Calefacción AGUA Y AIRE

EXPOSICION:

Elgoien, 32 - LEITZA
(Navarra)

OSASUN ZENTROA



Irakita dago dagoeneko Osasun Zentro berria.

Orain falta den bakarra, «Equipo de Atención Primaria» delakoa guztiz osatzea da. Bertan bi sendagile, pediatra bat, bi ATS, klinikako languntzaile bat, asistente sozial bat, zeladore bat eta administratzaile bat egonen liratekelarik.

Gure Osasun Eremua irekitzeko data (bertan Leitza, Areso, Gaoizueta eta Arano daudelarik) 1988. urteko hilbeltzaren lehen-dabiziko egunerako jarri zen. Dena dela, baliteke irekitzeko jarri diren egutegian aldaketak sortzea, hain zuzen, Nafar Gobernua-ren goi mailan aurreko ekainaren 10-a ondoren sor daitezkeen aldaketegatik.


Osasun Zentroak bete behar duen funtzioak, orain arte herrietako sendagileen gaixotasunei buruz izan duten ikuspegia hautsi nahi du. Orain arte, gaixotasunak sendatu izan ditugu agertzen zitzaizkigun ariora, eta gaixo bakoitzari aholku batzuk ematen saiatu gara osasuna berritzeko edo mantentzeko.

«Equipo de Atención Primaria» sistema berri honekin, kontsulta, etxeetako asistentzia, urgentzietarako serbitzua mantentzen da, noski.

Baina honetaz gain, ordutegiaren barnean lan egin behar dugu, zenbait taldeei atentzio eskeiniz; hauek, ezaugarri berezi batzuren jabe izateagatik, gaixotasun finko eta konkretu batzuetara lotuta daude eta (aldeaz aurretik nabari daitezkeenak).

Esate baterako: adinekoak, hipertensoak, eskola adineko umeak, diabetikoak, gazteak...

Hauetako bakoitzarentzat atentzio egitarau egoki a presta liteke. Baita ere haurdun dauden emakumeentzat, umea izan ondorengo errehabilitazioa, famili plangintza, sexualitatea, gazteengan haurdun gelditzearen prebentzioa e.a.



Era berdinean, alkoholikoak, drogadiktoak, erretzaileak eta beste zenbait aztertuko dira.

Honetarako (asistentzia egoki baterako eta lanean hasi ahal izateko datuak hartze ko) eguneroko kontsultan norberaren istorio klinikoaren fitxa erabiliko da, bertandatu pertsonalak eta pertsona horren zaindaritzarako garrantzizkoak diren beste zenbait gauza jarriko direlarik. Horrela kontsultara etortzen den aldiro, berehala bere osasunaren egoeraren azterketa bat egin ahal izanen da.

Fitxa hau sekretua eta konfidentziala izanen da, noski.

Beste alde batetik, «programatutako» kontsultetan alegia, sendagilea denengan pertsona etorrazten duena, gaixotzeko arriskuan dauden taldeen kontrol sakonago bat egitea da; kontrol hauen bitartez, osasun heziketarako hitzaldiekin eta beste zenbait gauzen bitartez.

Horregatik, lanerako sistema berri honen funtzionamendu eta antolaketa (kontsulta ez itxoin, gaixotasunari aurrera hartuaz) posible egingen du «Equipo de Atención Primaria» delakoaren barnean dauden parte hartzaileen artean banaketa barr egitea eta burutu nahi den ekintzaren arauera botikaria, albaitea eta herriko beste talde antolatu batzuk ere sartuko lirateko.

Antolaketa posible hauei noski, ez zaide denei batera ekin behar, bestela alperrikak lana eta aspertzia egingen lirateke nagsi.

Hasteko populazioaren gaixotzekoerari buruzko azterketa sakon bat egin behar da, zerk sortuak diren ikusteko eta teknika eta ekonomi aldetik dauzkagun bideak ikusi, gaixotasunak erasotzeko.

Behin kalte gehien egiten duen gaixotasunaren bat aurkituz gero, eta gainera bide tekniko, ekonomiko eta giza-bideen bitartez hobetu dezakegula ikusten badugu, hortxe egokituko zaigu lanari ekiteko lehen aukera, eta estadistika erabiliz, ondorio txarrak ateratzeko gai izanen gara.

Lan orduen funtzionamenduari dagokionez, etxeetako bisi-tentzat denbora egonen da, eskatutako kontsultentzat (orain artekoak) bezalaxe; gero, orain arte aipatutako kontsultentzat eta talde txikiei zuzendutako hitzaldiak.

Sanitarioek beteko dituzten lan orduak hauek izanen dira gutxi gora behera, goizeko 9etatik arratsaldero 5-ak arte. Gero guardiako ekipoa geldituko litzateke bakar-bakarrik.

Azken honekin gerta daiteke jendeak kontsultara edozein garaian joan daitekeela pentsatzea, eta hemen sortzea lehendabiziko tira-birak herriarekin.

Honek beste lanen funtzionamendua hautsiko luke, eta 8 ordutako kontsulta batean bihurtuko litzateke.


Horregatik beharrezkoa izanen da jendea kontsulta orduetan bakarrik joaten ohitzea, eta kontsulta orduetatik kanpo deitu edo joatea, egitan derrigorrezkoa denengan bakarrik, hau da hurrengo kontsulta orduraino ezin egon denengan.

Nahiz eta hasieran bi aldeetatik tira-bira txikiak sortu ahal izan, uste dut oso interesgarria eta aberasgarria dela osasuna ikusteko era berri hau. Denon eta denen arteko gauza bat ezala ikusiz eta lan eginez, taldeko lanaren bitartez aurrera atera eta mantentzen ahalegindu behar gara.

PEDRO OVIEDO

DROGAS

ASPECTOS SOCIALES DE SU CONSUMO



Sociológicamente, la incidencia del uso de droga varía de cultura a cultura e incluso dentro de distintos grupos de una misma cultura. Para entender el consumo de cualquier tipo de sustancia desde una perspectiva social (sea alcohol, heroína, cannabis, etc.), hay que tener en cuenta tres factores fundamentales:

1. **La disponibilidad de una droga dentro de una cultura.** En la sociedad occidental en la que vivimos está claro que el alcohol es la droga más disponible tanto por su precio, como por lugares donde se expende (bares, tiendas, etc.) como a los intereses económicos de producción vitivinícola, publicidad, etc., que esta sustancia mueve. Otras como la heroína se encuentran menos disponibles por su alto coste (un gramo en la actualidad cuesta aprox. 20.000 pts.), su venta ha de ser encubierta y no existe publicidad en las mismas.

2. **El contexto en el cual se utiliza una droga.** Cada sociedad o grupo étnico tiene su droga que la consume en un contexto religioso, médico o social determinado. Nuestra droga, el alcohol, se consume inicialmente en fiestas religiosas y populares (Nochevieja, fiestas patronales, etc.), siendo aprobado y reforzado su consumo, ya que le permite a la persona conseguir un estado emocional y físico que le permita olvidar su vida cotidiana. La sociedad marca unas pautas sociales de consumo de unas sustancias que aprueba, pero cuando alguien por motivos específicos llega a abusar de esa sustancia y se convierte en un alcohólico, la sociedad, en cierto modo, le señala con el dedo. ¿No es esto una contradicción?

3. **Sanciones impuestas por la sociedad por el abuso de una droga y consecuencias sociales de su uso.** Tal vez este es el punto que más nos debe hacer pensar y nos haga entender que el problema de las drogas que vemos todos los días en

los medios de comunicación (sobre todo por la heroína), no es un problema de que la droga sea cualitativamente «mejor» o «peor» sino sencillamente que las consecuencias que acarrea el consumo de drogas no institucionalizadas (robos, atracos, delincuencia, agresiones, etc.) mientras que nadie necesita robar para conseguir una botella de vino. De aquí que los políticos tomen continuamente medidas para erradicar el consumo de «otras drogas» (cosa que no está mal pero es insuficiente) y no hablen de tomar medidas contra el consumo de alcohol cuando se calcula que en este país existen 100.000 heroinómanos y unos 2.000.000 de alcohólicos.

He tratado con este corto escrito que cada uno intente entender un poco más a los consumidores de cualquier tipo de sustancia y comprender que la toxicomanía no es un vicio sino una enfermedad.

Tal vez esta cita puede hacer ver lo que es un drogodependiente:

«Mi psiquiatra me preguntó porqué me drogaba.
¡Que tontería! pensé yo.
Me drogo para levantarme,
para afeitarme,
para poder salir,
para seguir viviendo».

NOTA.— Dada la brevedad exigida para este artículo, aquel que desee más información sobre el tema puede consultar conmigo.

JAVIER TIRAPU

UN FUTURO PARA NUESTRO PASADO

Euskeraren normalizazioari buruz asko hitzegin digute eta aski aspertuak gaude honekin, ez dakigula nora jo, zer egin..., gure inpotentzia nabaria da. Asko ibili dira euskeraren galtzearen zergatiak, baldintzak eta bideak zeintzu diren aztertzen eta saiakera haunitz badira hortaz.

Joxe Mari Sánchez Carrión «Txepetx»ek, liburu hontan hau ukitzen du, nola galtzen den hizkuntza bat baina ere **NOLA ERREKUPERATU LITEKEN**, eta egiten du lehenengo ikasketa sakon, garden eta oso bat, galtzearen bideak nola-koak diren aztertuz eta errekerupatzeko baldintzak adieraziz. Hauerabat berria da guretzat. **ITXAROPEN BAT OTE DA?**

«Txepetx»ek ikusmolde orokor bat nahi zuen. Indar, jokabide, helburu eta euskaldunen borroka guzi honi zentzua emateko teoria orokor baten beharra aurkitzen zuen eta teoria orokor hori liburu hau da: «un futuro para nuestro pasado».

Ez da soziolinguistikazko estudio bat bakarrik, hau ere bada, baina hau baino gehiago ere bai. Hala dio egileak: «estamos ante otra cosa: el arranque de un nuevo discurso que algunos valientemente habían anunciado, que otros generosamente van, a partir de ahora a ampliar, revisar, aplicar y difundir y que aquí hemos tratado simplemente de reconstruir».

Askotan pentsatu edo entzun dugu oso zaila dela hizkuntza bat errekerupatzea, eta Joxe Mari argi uzten du, ez dela hain zaila, edo galtzea bezain zaila dela.

Euskararen normalizazioak (eta aspaldi hasiak gara hontan) gauza inportante bat esan nahi du; Euskal Herrian, helburu bezala. **ESKUBIDE OSOA DUEN HIZKUNTZA BAKARRA EUSKARA DELA**, hori da justiziazko printzipio bat, beste Herri guztietan bezalaxe, ez gehiago eta ez guttiago. Dinamarkan danesak duen bezalaxe, Frantzia frantzesak edo Espainia espainolak. Eta oraingo egoera diglosiko hau **MENPERAKUNTZAREN** ondorio bat da. Normalizazioa, justiziaren atzetik etorriko da. Ez dago justiziarik Herri bakoitzari bere eskubide osoa onartzen ez bazaio.

EUSKAL HERRIAK BERE INDAR GUZTIAK BATUKO BALITU, BI BELAUNALDI NAHIKOAK IZANEN LIRATEKE GURE HERRIA EUSKALDUNTZEKO (bi belaunaldi nahikoak izan diren bezala zenbait herritan euskara galtzeko). **HAUZIA** gudan dago, beti egon da gudan. Etsaiek museoko pitxi bat bihurtu nahi dute euskara, eta mapatik suntsituko lukete gure Herria; baina hau aspaldi jakin behar genuen. Hauzia euskaldunen eskuetan dago. Beraz, konfidantza hori hartzeko, arma horiek, ibilbide eta jokabide horiek zeintzu diren jakiteko datar liburu hau.

Beste momentu batean berak dio: «una lengua es más que una realidad individual», noski hori baino gehiago dela, **ESKUBIDE KOLEKTIBOA** ere. Euskaldu-

nok badugu euskeraz hitzegiteko eskubidea bai Txinan, Ingalaterran edo Finlandian, baina ez dugu eskubiderik han ikastolak, administrazioa, egunkariak... euskeraz izateko. Guk errespetatu behar dugu hangoa, eta berdin hemen. Errespetatu behar digute gure hizkuntza eta onartu behar dute bere bizitzeko eskubidea. Jakin behar da eskubideak non datzan eta zertan datzan, ongi jakin behar dugu non dauden mugak.

«Txepetx»ek bere esperantza azalduz esaten du: «yo creo que existen condiciones especiales en el pueblo euskaldun para hacer frente a este desafío y de este modo recuperar el protagonismo de su existencia y en la historia humana, pero puede ser también que esta obra pertenezca a otra generación y a otra época. Es en cualquier caso a partir de ahora el enigma pendiente que corresponde a este propio pueblo responder». Hauzia guri botatzen digu, **HERRIARI**.

Joxe Mari, euskeraren egoera aztertzen du baina ez bakarrik euskerarena, euskara bitartez, munduko beste hizkuntz minoritarioen konparaketak ere egiten ditu. Planteamendu berri bat egiten du, nola izan behar luken munduan zeharreko hizkuntzen arteko egoera eta zein den egiazko herri arteko edo hizkuntz arteko oreka.

Nik laburtuko nuke esanez **EA GU, HERRI BEZALA, EUSKALDUNOK GAUZA IZANEN GAREN AURRERA SEGITZEKO ALA BIDE BAZTERREAN GELDITUKO GAREN, EDO GELDITU ARAZIKO GAITUZTEN**.

Irakurketa ez da zaila egiten, egileak badoi berezi bat, alde batetik bere sakontasuna (azkarra, bizkorra) eta beste aldetik bere portaera jatorra, dotoretasuna, maisutasuna gauzak adierazterakoan eta batez ere azaltzen duen errespetoa.

Beti bere gogoan etorkizuna dago, baina «atz» (lehengoa) ahaztu gabe. Askotan hitzeginen dugu atzokoari buruz nostalgik eraginda, eta hau ez dugu ukatu behar, baina, «atzoan» oinarrituta «biharri» buruz jo behar dugu.

Irakurtzen duena ohartuko da zeinen motibatua sentitzen duen bere burua eta gauzak garbiago ikusiko ditu. **DENOK EGIN DEZAKEGU EUSKERAREN ALDE EGITEN DUGUNA BAINO GEHIA-GO**. Beraz, liburua ahal baldin baduzue irakurri, reflexionatu, eta zabaldu etxean, lagun taldean, lantegian... Hau abiapuntu bat izan dadila, ea hemendik aurrera zerbait sortzen den Leitzako herri hontan (behar haundia dago eta).

ANDONI

«Hemen euskaraz ez dakienak, berak jakingo du zergatik ez dakien. Baina hemen euskeraz ez dakienak, ez digu uzten euskeraz egiten. Eta hemen euskeraz jakin arren, euskeraz mintzatzen ez denak ere, ez digu uzten euskeraz egiten».

(B. Gandiaga)

Militarismoaz, ejertzitoaz edo soldaduska b hitzegiten denean, ezinbesteko egiten da diszip delegazioa eta morroitzaz gain injustizia eza rritzat dituen demokratikoa bezain arbitrarioa sistema usaldu honetaz xehetasun zenbait ino teia.


Badakigu, sobra jakin ere zein sistemaz ari zen. Bai, guztiok buru-hezur barruraino bihotza bera ere ito ez badigu, beharrik), genu natua daukagun hori. Herriak menderatzaille menderatueta, aberats eta behartsuetan; giza agintari eta morroietan, gizonezko eta emakua koetan, txuri eta kolorezkoetan, patroli eta lang tan, indartsu eta ahuletan banatzen gaituena; b guztiak militarizaten, tanke, misil eta nuklea estaltzen milioika tonelada diru gastatuz langab gosea, planetaren suntsiketa eta pertsonaren de tapena bultzatzen dituen mamutzar beldurgarr erhaile hori da, izanez ere, lur honek ezagu a keen gaitzik gaitzena.

Baina sistema hori ez da sendotu berez. S mak, edozein delarik ere, bere aingeru guardal asmatu ohi ditu bere etxea sostengatzeko zaintzeko. Zer da bestela ejertzitoa, sistema me ratzaile eta autoritario baten sostengu izateaz a te? Sistema desberdinak izan, badirela diote zer tek, itxuraz hala omen, azken honi bagagozkic dea ez dago zalantzik denak berdinak direla i nean. Bai hemen, bai Estatu Batuetan, bai Ru edonon, ejertzitoak guztiok ezagun ditugun l reen babesle eta bultzatzaile ditugu. Ejertzito funtsezko funtzionamendua jerarkia izan ohi Batzuk agintearen ezpata daramate besteek aq burua makurtu beste harmarik ez duten bitari Ejertzitoan gizabanakoak (gainean daudenak batera) ez du ez pentsatzeko, ez aukeratzeko aski sunik. Ejertzitoak beti eta hori soldaduska duen edonork hobeiki egiazta dezake, morri bultzatzen du, norberarenak ez diren beste zer interesen serbitzuan jakina.

Urtero milaka dira uniforme kakeri-berd honek bahitzen dituen gaizteak. Hauek behartu mehatxu eta zigorraren mende, betebehara dute daduska egitea, «gizon egin daitezen» baina pertsona, beharko lukeen bezala. Zertarako l du azken finean soldaduskak?

Soldaduskan, sistema honen tresna edo bit ko, gizarte honek dituen balore sakratu eta be katuen izenean, gaizteek biolentoki izaten, mat patriota itsuak, esaneko eta morroiak izaten, belatzek ez duela balio onartzen ikasi behar d axuri otzan eta tetelduak azken hanean.

Betebehartzat jotzen den minbizi honen aur denetarik eritziak eman izan ditu jend Batzuentzat, soldaduskara joatea denbora alfe galteza baino ez da, beste batzuentzat norber bizimodua haustea da. Badira baita ere orain goen soldaduska ejertzito okupatzaile eta zapalt baten serbitzuan egonik, orartzen ez dutenak b Euskal ejertzito baten fletara joatea onartuko l tenak. Eritzi hauek, ejertzitoak eta ondorioz s duska egiteak beregain daramana kontutan iza orargarriak badira ere funtsik gabekoak dira, ustez, ez bait dute arazoa bere sakontasunean tertzen (bilatzen duguna gizakiaren benetako a tasuna bada beinepein).



Soldaduskarekiko erantzunei dagokienez berriz zeresanik ez. Gehiengo batek soldaduska ez onartu arren, gogo txarrez bada ere, ejertzitortzea eta urte betez izorratzea edo ahalik eta hobekien pasatuz emoldatzea hartu izan du erabakitaz, sarritan beste biderik ez dagoelakoan gainera. Izan dira edo badira, soldaduska Euskal Herrian egitea bultzatzen dutenak, Euskal ejertzito herritar bateruntz bideraturik luzera. Errespetagarria izanagatik, ez derizkiot azken honi militarismoa edo soldaduskaren aurrean alternatiba bat denik, egitura militar guztien funtsa eta helburua bera den neurrian.

Alternatibak izan badira. Nork ez du entzun kontzientzi eragozpenaz zerbait? Gero eta jende gehiago da horretara jotzen ari dena. Estatu mailan banaz beste 16.000 objektore kalkulaten dira. Hoietatik % 63 Jehovako testigoak dira, % 32 objektore kolektiboak (6.000 gutxiagora bera, Euskal Herrian 1.200 en bat direlarik) eta % 3 kasu beraziak.

Objektore kolektiboak esan behar da, soldaduska ez onartzeaz aparta, serbitzu zibila delakoa ere ez duela onartzen. Frangotan jende askori somatu izan niodan kezka edo beldurra, soldaduskari uko egiteak lekarkiokeanaren izan da. Honetaz argitu, kontzientzi eragozpenak, nahiz eta Madrilen legez atze prozesuan dagoen lege batek hala esan, ez dardarrela ondorioz derrigorrez serbitzu zibila bete beharra, azken batean estatuak jartzen duen soldaduskaren ordeko serbitzu militarizatua baino ez baita. Aitzitik, «objektore kolektiboak» eginez gero biak ikatzen dira.

Horretarako, soldaduskara joan behar den eguna baino bi hilabetez aurretik istantzia bat bete behar da. Istantzi hori gobernu zibilean bete daitezen arren, honetan ibiltzen direnek «M.O.C.» proposatzen duena betetzea komendatzen dute. Honek eragozpen legea kritikatzarekin batera, «Prestazio social sustitoria» deritzana ere ez dela onartzen derazten du. Honetaz herri gehiago nahi lukeenik alego eta nora jo ez jakinez gero, hemen herrian onetaz arduratzen den talderik oraingoz behintzat dagoenez, besteak beste, ondoren emanen dizkiden helbidetara hurbil daiteke: Tolosan, Ap. 48; onostian «Donostiako talde antimilitarista» Ap. 49 edo «Zorroagako talde antimilitarista» eta Iruñean, Iruñeako «M.O.C.» Ap. 2105.

Badaude beste bide batzu ere, hala nola profugo izateko iheslari bezala alde egitearena. Soldaduska egitea den bitartean objektore daiteke, baina zigorra beti eragoz ere latzagoa izan ohi da. Azken hau erabazten duenak gauzak oso argi izan behar ditu.

Azkenik soldaduska egitera ausartuz gero, berriro desobedientzia eta soldaduen arteko elkartasuna litratzearena ere bidezko litzateke. Lehenangoa litratzen aurrak mobidak antolatuz, boikotak egitea gauza daiteke esatebaterako, beti kontu handiz ditzalegia. Bigarrenari dagokienez oso inportantea nobatada eta jendea sakanatzeko erabili ohi diren oihizko ohitura nazkagarri hoiel aurre egitea, lehenaren arteko batasuna bilatuz, horela organitzea eta errebelatzea errexago gerta dadin.

Gai hauetaz luze hitzegin daiteke. Dena dela hori oraingoz nahikoa delakoan beste baterako uztaiztuztet.

ILARGI BELTZA

GAZI GEZAK

HEMENTXE BERTAN

Batzuk beren hizkuntza alde-aldera hitz egiteko ez dute arretarik jartzen eta astakeri galantak esaten dituzte. Erdaldun askok beren hizkuntzaz hitz egitekoan hortzak itxiazten dituzten aldrebeskeriak esaten dituzte eta euskaldun batzuk ete ez dira atzera gelditzen lan honetan euskaraz hitz egitekoan. «Gaur goizean ikusi dizut, kotxean eraman zidan» eta honelakoak entzuten ditugu, «Gaur goizean ikusi zaitut, kotxean eraman ninduen» esan beharrean.

Hala; behin kotxea eraman nuen Anoetako tailerrera eta han esan zidaten bi ordu behar zituztela konpontzeko. Bitartean, Tolosara etorri nahi nuen eskapareak ikusi eta dendetan diru pixkabat gastatzera. Hontan, Leitzako neska bat han bere kotxea konpondu eta Tolosara heldu zena. Sartu nintzen kotxean eta iritsi ginen Gorosabel kalera. Neskak esan zidan:

«Non utziko dizot?

Gero etorri nintzen Leitzara eta Joxeramonik kontatu nion neskaren trakeskeri hau. Eta honek esan zidan:

«Hementxe bertan» esan behar hioan!

EDOZEINEK DESPEDITZEKO MODUAN

Inguru herri bateko gizon batek bere semea kisuskilea izatea nahi zuen eta Miel Joakin Inaziarbarunenarengana ekarri zuen ofizioa ikastera. Mutila alporja hutsa zen eta ez zuen gauza onik egiten lantokian. Ongi erakutsi eta gaizki hartu. Lanean ikasi baino nahiago zuen hila. Behin Miel Joakinek bidali zuen karretilarekin bi zaku igeltsuren eske eta bidean ahaztu egin zitzaion zertara bidali zuen. Baina ez zen asko larritu. Tabernako atean karretila utzi eta barrenara sartu zen. Usuala edan eta tabernariari galdetu zion:

«Miel Joakinek zertara bidali nuen bai al dakizu?

Holaxeko axolkabea zen.

Handik hilabete batzutara etorri zen atte eta Miel Joakini galdetu zion ia zer moduz ari zen bere semea ofizioa ikasten. Eta Miel Joakinek:

«Hara ba garbi esanen dizot. Zure semea edozeinek despeditzeko modun yarrrie dau!

ESNE GEHIAGO

Lehenago arto eta gari asko egiten zen baina beldar gutxi. Udan goizetan artaburu txar batzuk eman eta egun guztirako larre-rida bidaltzen zituzten behiak.

Praxkuk goizean behiak larratu zituen eta atsalde erdian hor etortzen zaio bat titia moztuta.

«Neri gogoak eman: honek Berutako alanbreetan moztu izanen dik. Joaten naiz eta titia hantxe alanbretik zintzilik. Etxera ekarri eta neonek al nuen bezala jostorratza eta hariz josi eta titia ederki itsatsi.

Gero zer da ta beste titietatik baino esne gehiago erantsitako tititik!

SATOR ZAHARRA

Belatsoan satorra ari zen jo ta keia, dena airean hartua zeukan.

Praxkuk jartzen zuen sator-zepoa baino satorra mihiaren azpitik iragotzen zen. Usan-belarrak egindako belenoa paratu eta ez zuen jaten. Mundu honetako maltzurkerien berri ongi zekien satorra zen hura. Ez zen gaztea izanen. Ifernukoa ere ez omen da berez abila baina bai asko ikusia eta horrengatik omen daki asko.

Zepoz eta beleno ez zegoela deus egiterik eta aitzurra bizkarrean hartuta joan da Praxku sator ehizera eta hor ikusten du satorra jotzen ari dela. Hanka puntten joaten da lurra mugitzen ari den tokira eta zapla han harrapatu da satorra.

Eta satorra zaharrieraren poderioz kalbotua zegoen!

BUKAERA

Ahaztu egin zait esatea. Praxkuk kontu hauen bukaeran esaten zuena:

«Hau ni hementxe nago en bezalaxe da egia!

NERE TENTUN

Praxku ardiak biltzera zijoan eta Bitto-riorekin topo egin zuen. Diosala eginda hasi zen eguraldiaz hitz egiten Praxku:

«Hegohaizea atera behar du. Bai, hala dau nere tentun.

Eta ordurako gaztain adarrak hautsiaz zebilen hegohaizea!

TXOKOLATE BIRIBIL

Zortzikok denda haundia omen zuen lehenago. Denetatik edukitzen omen zuen. Kupel haundi batzuk bai omen zituen eta Herriberatik ardoa ekarri eta bertan irakinarazten omen zion. Inguru herrietako jende asko etortzen omen zen salerosketak egitea: Aziendak saldu eta gauzak erosi.


Kanpotar bat etorri omen zen eta badakizue euskaraz hitz egitea bajeza. Hasi zen erdi euskara erdi erdera:

«Txokolate biribil.

Un decalidro de vino anciano.

Dos puertas. (Bi ahate esan nahi zuen).

ASTAITZ



IX. KULTUR ASTEA

PASA DELA! PASA DELA! Bai noski, bero zakar hartan murgildurik. Udaberri haserako aste «ospetsu» hori ederki ahaztu dugu. Leitzako historiaren «atal kultural» deritzan arlo hortan, aurten ere, bete dugu. Dena dela eta ohizkoa den bezala, pasatu ondoren azterketa edota balantzea dagokio. Horrelakoetan egiten den lehendabiziko galdera, ekonomiari burukoa izaten da noski. Baina poliki aztertu behar dugun zenbait puntu ere bada.

Alde batetik, orain dela zortzi urte asmoa bezala azaltzen ziren helburuak oraindik ere dihardute. Urtean zehar kultur maila zabal honetan sortzen den hutsunea betetzea, ekintza ezberdinez osatzea izango litzateke nagusiki. Praktikan aurrera nola eraman, urtero izaten dugu kezka nagusia. Horregatik, bilakaera bat gertatu dela urtez urte, ahal den moduan kalitatea hobetuz. Baina, oraindik aberatsagoa egin daitekela garbi ikusten dugu. Hemen antolakuntzaren arazoa sortzen zaigu. Nahiz eta aurten laguntza berri eta «gazteak» izan, organizazioa talde batetan ezin dezakegula utzi azpimarratu nahi genuke. Eskema orokorra, aldatu arren, dagoen bezala ere aurrera eramateko, barnestruktura zabalagoa bilatu beharko genuke. Bizirik dauden herriko talde, sektore, elkarteek bereganatu beharko luketela alegia. Lana banatzea besterik ez da. Ekintza bakoitzean talde batek har dezala ardura. Ez da zaila. Ez dugu txartzat hartzen egindakoa orain arte, baina «gorago» joaten ahalegin behar dugu. Datorren urteak lehen hamarkada betetzen du, eta hauek proposamenak besterik ez dira, baina kontutan hartu beharreko ideiak.

Aurtengoari lotzen bagara, orokorki positibizat jotzen dugu, nahiz et gure zalantzak izan. Hasera ezin hobetagoa, musikaldi bikainak. Kalitatea bakoitzak neurtzen edo bizitzen du, baina arrakasta haundia dutenak. Inportantzia berezia ematen diogu beti hurrengo egunari, Iparralde egunari, nahiz gauzak, guk nahi edo espero genuen

bezala ez aters osotara. Aipagarria da «Zazpiak bat» eta Iparraldeko loturak errebeindikatzen dugun egun honen giro alaia. Bazkal ostean batez ere... musika, kanta, tra-goekin batera nagusiak. Aste bukaeratik bestera pasatuz, Eskulangintzaren eguna ezartzen dugu. Eta kanpotik datozen erakusleengatik «piropoak» besterik ez badugu botatzen, herrikoak diren artisauengatik zer esanik ez. Bana bana ez ditut aipatuko hori baino gehiago merezi bait dut e, urtez urte taloak, opilak, gaztak, zeramika, uzta-riak... egin dituzten guzt i hauek. Bazkari baten truke egun guztia lanean aritzen den jende «haundi» hori. Trikitrixekin ederki bustiz egun hau ere, mantendu beharra da. Orain aste barruko ekintzak aztertzerakoan, alde batetik pelikulak ditugu, arrakasta ona dutela, baina gure zalantzak haundiena, hitzaldietan agertzen da. Zergatik hain jende gutxi urtero? Gizarte nahastu honetan ez zaigu deus interesatzen ala? Gaiak aukeratzeko ahaleginak egin ditugu baina nahi hori jendearengan ez dugu ikusi, Behar bezalako erantzuna ez da jaso. Has zaitezte datorren urteko gaiak prestatzen, zerbatrik pena mereziko du eta...

Aurten umeen egunak, pelikulak, marrazkiak, jokuak, pailasoak eta txokolatada, ederki eta gust ora bete dutela umeen nahia pentsatzen dugu, Gehiago egin daiteke, umeak beharrak ere badituelako eta behar duen inportantzia ez diogu ematen batzutan, Bizitzaren etorkizuna umeak dira.

Beno eta kezkaturik bazineten, ekonomikoki ongi at-
ra dela esan beharra dago. Jendearen erantzuna ona izan da asteen zehar. Horregatik era batetan edo bestetan parte har tu duzen guztioi eskerrik asko eta datorren urtean berriz, zuek eta gehiagok, haundiagoa egin behar bait du-
gu LEITZAKO X. KULTUR ASTEA.



FERMIN «INFERNU» TRATALARIA

Eup! Nor ote da? Tratalaria zaldi zuriaren gainean. Olaso, Miel Anttonio Errementanekoa, Infernutarrak, Aresoko Peruneko Domingo... Galan-galako zaldiak izaten zituzten. Orain baserriak gehienetara pistak egin dituzte eta zaldiaren ordezkotzea edo furgoneta erabiltzen dute. Bost edo sei tratalari etorzen ziren egunak izaten ziren. Laister azken-judizio. Azken judizioaren seinaleetako bat tratalariak atez-ate hasia omen da.

Fermin Lizarraga, hirurogeita hemezortzi urteko gizona, zerri erosten herriz-herri ibilia, makina bat ikulu ikusia.

—Leitzetik kanpora non ibiltzen zinen tratan?

—Bi zaldi izaten ginetien gehinen. Yoaten ginen herriz-herri zerrik erosit. Ezkurretik hasi, Eratsun, Saldits, Labain, Urroz eta handik kruzatzen ginen erreka eta yoaten ginen Amezti, Ittoiñ, Elgorriaga, Donamaria eta gabe itten ginen Donoztaben gehienetan, Etxaideren etxen. Hurrengo goizen atera eune argitzen, uda ba zen bostak alden, negun beranduxeo, eta handik yoaten ginen Legasan barrena, Narbarte, Oyeregi, Oronoz-Mugaire, Zozaya, Almandoz, Mendiola (Alamandozko auzoa), Berroeta, Aniz, Ziga, Irurita, Arrayoz, Garzain, Lekaroz, eta gaberako Elbeteko Berrekoetxea ostatura. Han gabe in eta handik aurrera berriz, zera, Arizkun aldera, Behartzun, Errazu, Gorostapolo, Iñarbil, Maya eta ezker aldetik Aritzakun, Arizate, Urdax, Zugarramurdi. Elbetetik hasi eta Zugarramurdiraño hori dena baserrie dok: Elizondokoak, Arizkungoak, Erratzukoak, Mayakoak, Urdaxkoak... Zugarramurditik sartzen ginen mendiz-mendi beste aitzin esan doten Arizkungo eta Mayako baserri horik denak ekusiz Olabi-dea izena dun menditik Etxalarre, Berara, Yantziko Benta eta gaberako Aranaze. Plazan ondoko etxe baten itten ginen loa Hurrengo eunen Aranazko lau barriok ekusi eta Trinitate barrena Perralekure eta handik etxera.

Beste batzutan Ittoiñ biltzen ginen, Joxeparen etxera. Joxepa hau huen gero Donoztaben ostatu famatue yarri zuna. Gure etxea balitz bezalaxe izaten ginen etxe hontan. Etxe ona huen. Lau-bost urte handik ibilli ginen. Sunbillera ta handik yoaten ginen. Herriz-herri ginebiltzen behiñe ez bayuen behar aie ekusten. Zerrik ba zenik ez oharatu, gaur tratan ez konpondu eta bihar bai...

«El 31» hasi ninyuen tratan. Gure etxen automolle bayuen baño zaldiz ibiltzen ginen. Pentsa zak orduko gastutik oraingora zer aldea daotan. Oaiñ estankora igoal yoatek kotxeekin. Ordun hemendik zubitara yoan eta kamioan uzten ginen automolle, herrire sartu gabe, berrehun metroan gasolina ez gastatzeagatik. Hiruroita hamasei zentimoan zean litro gasolina. Arabera oaiñ laroita bi peza baño garestigoa huen orduko «setenta y seis céntimos». Eta gañeako gauzek, esku lana eta automollen gauzek oaiñ baño askoz'e garestigo huen. Aurreneko automolle, GMC furgoneta, 28an erosi ginen eta gero 30n erosi ginen GMC kamiona eta 31an kotxea. Garai hartan Leitzen hiru zaldizko kotxe ituen: Gure etxen, Musunen eta Baldana. Goizeko bostetan ateratzen ituen hemendik Tolosara han rapidoa harrapatzeko. Urte santisimo guzin hiru kotxe hemendik Tolosara eunero, iandetan'e bai.

Nere attek eramatten zien hemendik Donostire ikatza. Kargatzen zien Lopenen galera haundie hirurogei zaku ikatzekin. Berak hartzen zien mendie, lotea. Bere konture itten zien ikatza. Lopenetik ateratzen ituen atsaldetako ordubitan eta allatzen ituen Andoañe gaberako. Han gabe in eta hurrengo goizen Donostiko parte zaharrera eta egoerdirako pisupisu deskargatzen zetien hirurogei zaku ikatz horik, bakoitzek behar zun arabera. Eta bueltarako kargatzen zien Zortzikontzat beajea: itsas-arta edo mille gauze. Gaberako etortzen ituen berri Andoañe. Andoañe gabe in, hurrengo goizen atera eta egoerdirako Leitza. Asten bi beaje. Beaje bakoitzen eramatten zien ikatza saldute hirurogei duro hartzen zetien. Haruntzen zerbatte kontrabando pixken bat'e eramatten zien mikeletek ekusi gabe ikatz tarten sartute.

—Ordun zen ba noski «hiru otxoko» (1888) elurte haundi hure...

—Bai, ordun huen. Atera ituen ordun galera ttiki batekin, bi errebuedako galerakin. Behian balanziñe zien lau katekin eta han zaku batzuk eramatten omen zetien. Nere atte zena eta nere attuna zena atera omen ituen hemendik atsaldetako ordubitan eta elurre eraso eta Ibiurre orduko balanziñe yotzen omentzeyoan elurrek. Donostire yoan emenituen eta bueltakoan Eldoainen galera utzi eta mandoakin etorri omen ituen etxera. Berrroi eunen hantxe eundu omen huen galera Eldoainen. Eta gehio're bai hola geldittuk. Gogortzatarrak Herriberara yoan ardoketara eta galera utzitte etorrik ituen. Eta Tolarrera, «Martin Behor» esaten zioanari, ehun behor hill omen zekitzeyoan. Gosek hill behorak, bixten zeok, yakiñe. Eta azkenekoari artaburue yarri omen zeyoan aban. Aleye gosek hil zela ez esateagatik.

—Pasadizoak'e kontatzen dittozo ba zok...

—A bai. 47-ko maiatzaren hogeien nola hill zun motill batek bere andregai. Hok izandu ituen nobioak eta urte bete bayuen neskatxek utzi zula motille. Motille bizi huen baserrin eta handik berrehun metrora andregai ari huen harbi ateratzen. Astoa kargatu zien eta kamiora ateratzekoan motillek yoanda hamahiru aizkoazo eman zekzeyoan. Hamahirugarrena burun sartute utzi zeyoan. Ni han nenbilen ordun eta belaxe enteratu ninyuen. Bi famillik ongi izautzen netien nek. Bik izaun haundik. Motille andregai hil eta seittun Salditse konpesatzera yoan huen. Salditsen zean apez Iruritako Salla, bere anaye pillotari hobenetakoa izandue, remontiste. Apezan bidez inork ez zien yakiñ, «secreto de confesión» huen, yakiñe. Motil hurre ibilli huen han arribordaz-arriborda. Inazio Baleztenekoa, neskan atte, eta beste bat yoan ituen arriborda batera eta bazekien seguro motille han zela. Eta motillik ez han. «Hemen zer pasatu da oaiñ dela minutu batzuk hemen zean da». Baño zean panpano arban azpin. Attek amorratioakin panpano arabak goitik behera yotzen zetien eta motilleri sekuleko zuloak in zekzeyoan bizkarren. Baño motille isilik eta ez ituen oharu han zeanik. Gero yoan huen Frantzire eta handik extraditatu in zien. Donostin eundu huen kartzelan eta andregayen atte izandu huen ekusten. Bueno horik hola diela gu ginen Huarteko merkadure yoanak Seberiano eta bik, ehun da gehio zerrikin. Eta etorri ginen Iruñera bazkaltzea. Periodikoa hartu ginen eta yatzen zien «Hoy es la vista de causa por la muerte de...» Eta elkarri esan gineyoan, joñe hau ekustea yoan behar diu. Yoan ginen eta han zeuden bi partetatik berroi laun Urrozetik yoanak. Galdetu zeyoan ia erdaz ongi entenditzen zuen eta denak esan zien ezetz. Ordun neri esan zeiden interpretazioa inen al nun. Juezak jurarazi zeiden ia bi partek esaten zuena egie esanen al nun eta baietz. Akordatzen nak motillek nola beidetu zeiden esanez bezala: «zu're hemen za». Atera zitzioan hamahiru urteko kartzela. Eta «por redención de penas» lana inez bi eun kunplitzen zetien eta atera huen handik sei urtera.

—Zuk non saltzen ziñozen erosten ziñozen zerrik?

—Huarten da, Irurtzunen da, Astorgan da... Baño merkatu prinzipalena Irurtzunen. Etortzen ituen Aragonesak, etortzen ituen Leondik, etortzen ituen kataluñatik, etortzen ituen probintzi askotatik Irurtzune.

—Konpetentzirik izaten al ziñuen?

—Jeeesus! Konpetentzirik izandu ez bagio. Erosen konpetentzie eta saltzeñ konpetentzie. Leitzetik Seberiano eta ni, Olaso eta nere anaye, Ojalateroan, Aisotik Patziku Saltsanak, Elizondon Erasotarrak (Seberiano, Miel eta Domingo) eta Gorriti. Herriberatik'e etortzen ituen zerri eroste.

—Infernutarrak kontrabandista haundik izanduk direla esaten do yende...

—Nek sekulen ez dit kontrabandorik ibilli. Ez nere burue ona itteatik baño nek sekulen ez dit gauz bat kontrabandoz ekarri. Estraperloan bai ibilli izandu ninyuen. Estraperloko garayen Naparroatik Gipuzkoara zerriker eramatea ez huen libre. 42-ko urte zahar gaben bi kamion zerri gineozken hemendik Tolosara eraman beharrak. Arbitrioatako enpleatue ari huen radioz gaberdiko meza entzuten eta gu, bi kamionak Urtoko paren utzi eta Urtotxikiko belatsoan hure obra noiz yoanen zen zai kamion pasatzeko. Noizbaitte allatu ginen Tolosara.

1986-ko ekaina.

ASTAITZ

Esteban Labayen eta Martin Jauregui

ARESOKO INGURUTXOA AZKENEKO ALDIZ JO ZUTENAK

Beste euskal herri askotan bezalaxe, Areson ere, dantzatzan zen bertako ingurutxoak. Baina, ez omen zen «sokadantzarik» egiten, hala esan digu Miguel Barandaraínek; eta bere oroitzean, «zortzikoa» azkeneko dantzatu zuten aurrelaria eta atzelaria (gaur punta-koak esaten dugunak) Bautista Arrayago eta Isidro Pellejero izan omen ziren.

Gaurregun, ordea, ez da kasik aztarnarik geratzen Aresoko Ingurutxoaz. Denbora bait da gauza guzien asesinorik suabeena eta ezkutuen. Inork ez daki ingurutxoaren partiturarik badenik ere. Duela urte batzuk tolosar bat ibili omen zen Aresoko Ingurutxoaren doi nua berreskuratu asmoz. Baina, ez dakigu nor zen; zer egin zuen.

Esteban Labayen txistularia eta Martin Jauregui atabalaria izan omen ziren Aresoko Ingurutxoak azkeneko aldiz jo zuten bikotea. Baina, gizaldiz gizaldi bikote honengana iritsi zen dantza zoragarriak ez zuen, agi denez, jarraitzailerik izandu. Estebanen txistua eta Martinen atabala isildu zirenean, triste geratu zen Aresoko plaza. Bere betiko dantza ezti harenik gabe geratu zen. Gaur oraindik aresoar askok esan didaten bezala: «geoztik ezta Aison zortzikoik dantzatu». Ez behintzat bertako «zortzikorik».



ESTEBAN LABAYEN Txistularia

«Eguarreko Ziztularia» esaten ziotena, orain dela 109 urte sortu zen. Bada zer bait. Hona zer dioen elizako artxiboak bere bataila egunaz:

Día treinta y uno de Enero de mil ochocientos setenta y ocho, Pablo Yaben, residente en esta villa, bautizó por necesidad en casa de sus Padres un niño, que dijeron haber nacido a las cinco de la mañana del mismo. (...) Es hijo legítimo y de legítimo matrimonio de Martín José Labayen, natural de esta villa de Areso y de Antonia Mariezcurrena, natural de la de Ezcurra. (...) Se le puso por nombre Esteban. Fueron sus Padrinos Esteban Arreyago, natural y residente en esta villa, y Catalina Mariezcurrena, natural de la de Ezcurra, y residente en Buenos Aires, por cuya comisión asistió al Bautismo Magdalena Mariezcurrena, a quienes advierte la cognación espiritual y obligaciones y firmé

D. Joaquín Ignacio Arrayago, Abad»

Ez omen zen ezkondu. Mutil zaharra izan omen zen. Hargina ofizioz; herri askotan ibili zena, eta langile egokia, mainosoa. Arriben, Gaintzan, Beteilun, eta beste herri frankotan ibili omen zen txistu jotzen. Areson ere bai, urte sail osoan. Orduan ez bait zen hura beste musikorik. Baina, Angel Alduntzini omenajea egin omen zioten; Estebanez, ordea, ez omen zen inor akordatu, ez hil zenean, ez hil aurretik; hala esaten zigen bere ilobak, hitzak bihotzetik sendituak.

Gizon umila eta zintzoa omen zen. Eta ez omen zen bere lagun atabalaria (Martin) bezain farrandazalea.

Eta azkeneko urtetan, apaiza kaskailu batek, ez omen zion elizan txisturik jotzen uzten. Eta laro-geitamar urte zituela, apaiza kaskailu hark berak idatzi zuen bere heriotz oharra. Gauzak nola izaten diren!

«El día diecisiete de Febrero del año mil novecientos setenta y ocho, a las seis horas, en esta Parroquia de Areso murió en comunión con la Santa Madre Iglesia, D. Esteban Labayen Mariezcurrena, soltero, de noventa años de edad. (...) y para que conste, firmé

Francisco Aranguren»

Betirako isildu ziren bere txistua eta ttunttuna Joan Miguel Saizar, txistulari berastiararen eskutara pasa omen ziren, eta txistua oraindik bizi da.



MARTIN JAUREGUI Atabalaria

Gorputz azkarrekoa eta bizkorra zelako «Martin Haundi» esaten ziotena, orain dela 125 urte jaio mundura. Hara zer dioen eliz barrutiko heriotz oharra:

«Día cinco de Julio de mil novecientos cincuenta y cinco: a los ochenta y tres años de edad: a las quince horas: murió en esta parroquia de la Asunción de Nuestra Señora de la villa de Areso, en comunión con la Santa Madre Iglesia, D. Martín Jáuregui Pellejero, natural de Lizarza y residente en esta villa, viudo de Dña. Juana Josepa Zubillaga, hijo de D. Mateo y Dña. Josefa Antonia, habiendo recibido los Santos Sacramentos o Penitencia, Comunión y Extrema-Unción infrascripto por mí, cura parroquial.»

Beraz, Martín, Lizartzakoa genuen sortzez

Oso farrandazalea omen zen, egunean egunkoa bizitzea gustatzen zitzaion horietakoa. Orain, lanerako maina haundia omen zuen, hori bai. Maizter izaten omen ziren familia, eta baserri askotan bizi izandu omen ziren. Behin batean, bere andreak errenta pagatzera bidali omen zuen nagusiagana, eta errenta pagatu beharrean tabernan diru guzia gastatu eta itzuli omen zen etxera bapo, gizona!

Esteban bezalaxe herri askotan ailegatu omen zen atabala jotzen, Gaintzan San Martinetan, Beteilun, Arriben, eta baita leitzako dantzariekin ere «Perratzalle» esaten zioten batekin (Bernaberen aita zenarekin) eta ... Atabal haundi bat erabiltzen omen zuen; ziriak ere pisu haundikoak, gerezi adarrez berak eginak. Baina, bere atabala bezain maite zuen ardoa. Bizpauru aldiz utzi behar eta azkenean bere atabala. Zorrak pagatu eta, semek eskuratzen omen zioten berririo atabala. Plazaolako trenbidea egiten ari zirela apustua egin omen zuen kantaro osoa egun batean uste baitetz. Hamabi litro ardoz betetako kantaroa uste omen zuen ilunabarrerako, eta baita apustua irabazi ere! Gurputz haundikoa bazen ere, egun hartan izanen zituen denen behar-erak!

Hogeitaz urte zituela ezkondu omen zen Juana Joxepa Zubillagarekin, eta zortzi seme-alaba izan zituzten, 6 mutiko eta 2 neskatu. Hiru ameriketara joanak, bi frantzi aldean bizi direnak, beste bi hilak, eta Miguel, oraindik Aresoko Otxondon bizi dena. Honetxek kondatu dizkigu bere aita zenari buruzko berriak.

Andrea oso langilea omen zuen, eta seme-alabak ere hala atera omen ziren: oso langileak. «Beharko! biziko bazen non edo han saiatu beharra zegoan da!» esaten zigen Miguel. Ezor gabe ezkondu omen ziren: «lau ollokin, ta haik bestek emanak». Garai hartan aberatsak banaka izaten bait ziren. Trenbidean eta beste lanetan aritu zelako, Paco Tirapu, orduan Leitzan maisu zegoenak, kontsegitu omen zion eguneko peza Diputaziotik, jubilazio modura edo.

Eta probreak izan zirela ikusi besterik ez dago. Hona zer esaten duen lehen aipatu dugun heriotz oharra:

«...Al día siguiente fue llevado su cadáver con el oficio del Ritual y enterrado en el Camposanto de esta villa de Areso, y en sufragio de su alma se hicieron funerales en esta Parroquia de segunda clase, el día diez y ocho del mismo mes. Y para que conste firmé

Manuel Iriarte.»

Hiru mailatakoak izaten omen ziren garai bateko entierroak: primerakoak, segundakoak eta tertzerakoak. Martin atabalarari segundako gradua eman zioten hil zenean. Baina, bost ajola hari: «Ni akabatzen naizenean, erabat akabatzea nahiko nitek, anima ta guzti» esan omen zuen behin, lagun artean zegoela.

Bere atabala eta bi ziriak. Leitzako Tolatxene-ko Klaudio zenaren eskutara pasa omen ziren, eta ziri biak oraindik Kandidok omen ditu.

Eta bukatzeko, hasierara itzuliaz. Behar bada, oraindik berreskura daiteke Aresoko Ingurutxoak. Bautista Caballero soinu-jolea izan liteke bere musikaz oroitzen den gizon bakarra. Beraz, dantza eta folklore munduan zabiltzatenok badakizue nora jo. Bautista Caballero, Ibarra bizi omen da, San Inazio auzoan, 9. kalea, 2.ª B. Tfno. 670375. Orain de garaia, ez denbora joandakoa. Aresoko Ingurutxoak merezi luke oraindik, hainbeste urtetan jo zuten Esteban Eguarrekoa eta Martin Haundi Otxondokoaren omenetan, bertako plazan dantzatuazitea.

XIXIFO

OHARRA: Esteban Labayen (txistulariaren ilobak), Miguel Jauregui (atabalariaren semeak), Miguel Barandaraín (Martin Haundiri buruzko pasarteak kon-tatu dizkidana) eta Pellejero, oraingo alkatea (artxi-bo-ko datuak atera dizkidana) izan dira lagundu dida-tanak. Beran laguntza gabe ez nuen deus egiten.

MUSIKA! BAI, ESKERRIK ASKO

Joxe Jabier Aizkorke, J. J. lagunentzat dugu, musika munduari bultzada haundia eman diona Leitzako herrian. Indar berritze hau, gogo hau nolabait nabaritu egin da, eragin haundia izan du eta nola ez ondorio politikak ere bai. Hementxe duzue egin diogun elkarrizketa Goizuetako «Leitzar berri» honi:

PLAZAOLA: Kontatu iezaguzu nola izan azkeneko urtetako prozesoa.

Leitzan, beste lekuetan bezala, jauntxo eta zapaldu, gaineko eta azpiko, ttikiak eta haundiak bizi izan dira denboran zehar. Hau ez dugu hemen esplikatuko, ordea. Gure helburua ximpleagoa da: Bertso batzuk berkaleratzea. Izan ere, duela hirurogeitamar bat urte ikasi eta kantatu bait zituzten leitzarrek bertso hauek.

Zenbaitetan, kantuak eta bertsoak hil egin dira. Beste batzutan -batek ez jakin zergatik- hortxe diraute, setati eta bizkor, bereari eutsi, nahian.

Horra ba, hemen, Lazaro Bengoetxeak Leitzako udalari jarritako bertsoak, ezarriari lan pixka bat eman nahi badiozu.

Aspaldi hontan ixilik nengon orain hasi naiz kantatzen esan behar det Leitzako herrian zer gauza diren pasatzen arrazoiakin aspaldi hontan beti ai zaizkit tentatzen ia bertsoarik lehen bezala ez al dedan jartzen

Neronek ere pentsamentua beti derabilet buruan ezetik baira Leitzako herriak zer mudantza hartu duan nahaspila eta satsa besterik askok ez dute goguan Jesus maitia jarri zaitia gugana erreparaoan

Hogeitamalau urte badira Leitzara sortu nintzala behin ere ez det nik ezagutu jendea orain bezala hiru lau gizon jarriak daude ona gaizki behar dala hobe litzake konpondutera lehengo gizonak bezala

Ez dira asko hor dabiltzanak goienez ere dira lau paseante bat errekatarra pozik etortzen dena hau bestia berriz herritarra da biek egiten dute rau hoiek ederki izango dira palazioak badirau

Hori laugarren sozioa da ez det asmatzen izenik ez nuan uste Euskal-Herrian zala holako gizonik okasioan ez badabila ez da horrekin gauza onik agintzetikan bialdu zan da ez zaio joaten penarik

J. J.: Musika arloari dagokion prozesoa, noski. Bai. Nik uste herri batetan prozesoa parekoak direla. Hau da: musikan da galdetzen didazuen balantzea. Baina, aurretik esango nuke edozein arlotako kultur ekintza eta kultura, herriaren expresio edo adierazpena denez, herriaren kultur prozesuarekin lotuta dagoela. Orduan nik galdetuko nuke: Zer nolako kultur prozesoa izan da Leitzan azkeneko bost urteotan? Eta honi erantzuteko nahikoa da kostatazio bat egitea. Leitzan kultura orokorra landu baino, kultur ekintza puntualak dira azpimarragarriagoak. Horrek esan nahi du zaila gertatzen dela kultura iraunkorra lantzea eta orokorki planteiatzea... Nere lana gehienbat umeengana zuzendua izan bada ere, umeek ere nabaritzen dute herriaren eragina alde honetatik.

PLAZAOLA: Umeen abesbatza ere osatu zenuen, eta aldizkari hontan ere bere momentuan honen berri eman genuen. Zenbat ume pasatu dira zure taldetik?

J. J.: Nere esperientziarik maitagarriena umeen abestaldea osatzea eta lantzea izan da Leitzan. Eta esan ere esango nuke gratifikanteena. Zenbat ume pasatu diren? Denetara... bota dezagun ehun ta hogeiren bat.

PLAZAOLA: Musikarako trebetasuna, ahotsak, nola ikusi dituzu Leitzan?

J. J.: Gure Euskal Herrian musikarako trebetasuna eta areago kantarakoa oso ezaguna eta berezia izan da beti. Leitzan, herri euskalduna bezala ez dago hortik aparte. Gure Herria herri kantaria da. Leitzak izan du bai aspalditxo tradizio jator bat arlo honetan. Eta hori sumatzen dut bai umeengan eta baita ere herri mailan.

PLAZAOLA: Eta Leitzako egoera musika mailan, lokalak, irakasleak, prestakuntza, nolakoa da?

J. J.: Beno, hemen kritikoa azalduko naiz. Eta nere kritikak bai gurasoei bai Udalari zuzenduak izango lirateke. Ezer gutti egin da aipatu dituzuen arloetan. Bai solfeoak klasetarako bai umeen abestaldarako laguntza oso eskaxa hartu dugu. Baita Eskola Komarkaleko zuzendaritza edo irakasle-goagatik ere. Lehen urtetan eskolako gelaren bat uzten baziguten ere, azken bi urteotan hori ere kendu egin ziguten. Ez dut ulertzen herriko Eskolako zuzendaritzak edo irakaslegoaren jarrera hau. Ez naiz sartuko languntza eskax honen zergatietan, baina susmagarri benetan suertatzen zait hau dena.

PLAZAOLA: Lekunberrin badago kontserbatorio ordezkoa; hemen zergatik ez?

J. J.: Hemen ere eta lehengo planteamenduari jarraituz, guraso eta Udalak ez dira gehiegi arduratu behar diren pausoak emateko. Herri kultur plangintzarik ez da inondik ere ikusten. Guraso asko beren umeen aldeko kezka -arlo honetan- oso mugatu azaltzen da; hau da: «nereak aurrera aterata eta ikas dezala», baina herri mailan kultura aurrera ateratzeko kezka haundirik gabe. Pertsonalismo gehiegi. Hemen ere zergatiak oso zailak aztertzeke. Ez dakit... baina elkar lana edota denentzat den zerbaiti eustea ez da ikusten herri giroan. Eta ez nuke «mea kulparik» ukatu nahi. Antolakuntza eta elkartasuna minimo batekin Lekunberrin egin dena ere lortu daiteke. Nola ez?

PLAZAOLA: Herriko gazte batzuk, ilusio eta gogo haundiz gainera, badabilta mundu hau landu nahiean; zein kontseju edo aholku emanen zenieke?

J. J.: Aurretik nere zorionik beroenak Euskal kantu Lehiaketan, Leitzako gazte talde honen eskeini duen lanagatik. KIRKIR TALDEA eta IZARRA BIKOTEA, ZORIONAK eta segi hildo hortatik. Leitzan herria ezaguterazi duzue Euskal Herri osoan. Jarrai hortan. Zein aholku? ez naiz oso aholkulari ona. Lana eta lana. Lehen aipatu dudan lan iraunkorra beharrezkoa da. Dasta musika, abestiak, eta dastatu ondoren eman, eman, besteek dasta dezaten! Hauxe litzateke nere aholkua. Bale?

PLAZAOLA: Etorkizuna, nolakoa ikusten duzu?

J. J.: Beti gure musika eta kultura gaiekin. Etorkizuna herriaren baitan datza. Hortarako HERRIA sentitu behar dugu. Eta herriarekin bat eginda bere sena suspertzeko gai izan; suspertzaila lana litzake gurea. Eta herria esaten dudanean bere nortasuna, bere kultura, hizkuntza, musika, e. a. esan nahi dut. Etorkizuna? Ona, oso ona, lehen esandakoetan oinarrituta.


Moda berriko gizon batzuek aiartu ziran herriara okasioan ez badabilta sasegatzen ez dira hemendik pobre joan ziran baino aberats etorri dira baserritaran bizimodua ez dute asko kupida

Egun biti bat joaten dira kejurekin Iruñera gezurrak eta enbusteria trenian eramatera pakian dauden ondraduari okasiua jartzera oraindainoko biagiakin ez dute asko atera

Gautxori



INOR



Inor, Leitzan sortu zen zenbait jende asperturen artetik, eta herri honetan hainbeste aktibitate daudenez,... jotzen hastea bururatu zitzairen.

Musika rock eta punk-en arteko nahasketa bat da baina ska, reggae eta Harkof bariazio batzuk ere baditu. Honekin kontuak atera ze musika mota egiten duten.

Potrokomíne-ren eragina ere badauka (hauek egin zuten posible Inor-en mugimendua) Ah! eta bada ordua haueri entrebistabat egitekoa, Inor-ez potrotaraino gaude eta. Taldeko parte hartzaileak hauek dira: Pello, kitarrarekin, zortzi urte daramatza jotzen; Maria, bajoa, bi urte jotzen (berak bakarrik ikasi duela-rik); Peru, bateria, hiru urte Artadi txaranga kaja jotzen eta gaur egun Basaburuako txaranga. Azkenik Tipule, bi urte ahots profesionala bezala.

Orain beraiekin hitzegin behar dugu, beren aurrerapenaz eta diskaz:

–Nola ikusten duzue zuen aurrerapena bi urte hauetan?

Gogo haundiz hasi ginen, lehendabiziko sei hilabeteetan sei abesti egin genituen, zailena lortu ondoren, abudogo joan beharrean, alderantziz gertatu zitzaigun, osotara gelditu arte. Urte terdian zortzi abesti egin genituen. Orain berriz abesti berdinekin daramakigu, nik zer dakit...

–Non jarriko zenukete zuen musika zerotik hamarrerainoko eskala batean?

Peruk dio, musika mota asko dago, eta bakoitzak konoizmentu batzuk eskatzen ditu, gainera musika atsegin zaizu edo ez zaizu atsegin. Ez dauka notarik.

–Atsegin zaizuelako jotzen al duzue edo protesta bezala?

Peruk dio, neretzat desahogo bat da, eta desahogo honek plazerra ematen dit Nik gozatu egiten dut jotzen.

–Gusto berdintsuak al dituzue?

Hortan oso zaila da bat etortzea.

–Egiten duzuen musika atsegin al zaizue?

Atsegin, bai atsegin zaigu baina beti abesti berdinak jotzez aspertu egiten gara.

–Laguntza asko al dago Leitzan musika arloan?

Ez, ez dago laguntzarik, beste gauzetan bezalaxe; ez dirurik, ez eta kurtsilorik montatzen nahi duen guztia erantzutzea...

Eta zer esanik ez kontzertuei buruz, hemen ez da deus egiten, berbenak bakarrik eta beste musika mota asko dago aurretan.

–Aizue noiz eta non entsaiatzen duzue?

Oso gutxi entsaiatzen dugu, ia-ia ezer. Nola? behar den bezala. Non? Ahal dugun tokian, agrikolan. Eta «por zierto» beti

gureganako kejak daude eta handik trasformadore bat, mailu bat, bi giltza fijo, destornilladore bat... faltatu dira.

Oso gauza arraroak gertatzen dira; anplifikadore bat hautsita azaldu zaigu, bakarrik dirudienez. Jotzen dugun tokian kapilla egon zenez, izpiritu santuak egin izan du. Ah! Baina uste dugu ez duela giltzarik, orduan...

–Beno goazen diskaz hitzegitera?

Nola bururatu zitzaizuen diska grabatzea? Ez zitzaigun bururatu, eskeini egin ziguten. Diputazioak konkurtso bat egiten du eta berrogeien artetik hamargarrenak gelditu ginen. Hemendik produktore batek deitu zigun beste talde batekin diska grabatzeko (Ad Hominen) talde, Iruñekoa.

–Diferentzia handia al dago diskatik zuzenera, edo hobeki esanda diska entzutetik zuzenera?

Beno irrintzi bat satu dugu, Gotzonek egindakoa (eskerrik asko hemendik), gero tiro eta bomba batzuk ere sartu genituen, baina ez du soinu ezberdinik zuzenarekin konparatuz.

–Zein eta zenbat abesti grabatu dituzue?

PERROS MILITARES diren zazpi abesti grabatu ditugu, hauen gaiak soldaduska eta militarismoa dira. Gero GUERRA SANGRE Y MAL hontan Reagan eta Gorbachov ekintzak komentatzen dira; ANTIMENTAL zibilizazioaren aurka doana; EHIZTARIAK ehiztari plaga honen aurka hitzegiten duena; SOLAMENTE UNA VEZ, Sex-Pistols-en bertsio bat da.

–Diskaren soinuarekin gustora gelditu al zarete? Egia esateko oraindik ez dugu entzun.

–Onerako eginkizun bat iruditzen al zaizue?

Eginkizun guztiak onerako dira, hasiera batetan gaizki tratatuak izan ginen, gure ezjakintasunaz baliatuta baina gero bere eritziak zerbait zuzendu zituzten.

–Diskatik probetxurik ateratzeko asmorik bai al duzue?

Ekonomia aldetik hitzeginez ez dugu dirurik ateratzen, 250 cassette eta 12 diska ematen dizkigute baina publiko eta etorkizunari begiratuz, promozionatu gaitzekela pentsatzen dugu.

–Bukatzeke, zer moduz doaz aktuzioak?

Nahikoa deitzen gaituzte, batez ere Donostia eta Gipuzkoa osotik; Nafarroan nahiko gutxi atera gara.

Soinuari buruz bati ez digute behar den bezala jarri, baina hala ere martxa jarri dugu non nahi, jendeak aluzinatu egiten du, benetan inpresionagarria da.

GORA INOR! AUPA; JARRAITU GAITZAZUE. GURE BORROKA ETENGABEKOA DA. ONDORIOZ BAKOITZAK NAHI DUENA EGIN DEZAKE.




tera berria den Patxi Perurenaren, edota guztioi ezagunagoa zaigun «Karretoren» *Emily* liburua dugu aurkeztera saiatuko naizen honako hau.

Bertan Felipe Juaristik liburuaren atzekaldean dioena errepikatzen auzartzea gehiegi ez bada behintzat, nire ustez zehaztasun osoz azaltzen bait digu egi egiz zein den liburuaren egilea bera; «Patxi Perurena dugu hizlaria baina Emilyk jarriko dio ahotsa». Honekin esan nahi dizuet ez naizela gehiegi Patxi Perurena berarekin sartuko, benetan entzuten den ahotsa xalo hori Emily berarena bait dugu, Emily liburuaren egilerik fidelena dela esango nuke.

Mugarik gabeko liburu hau eskuetan hartu nuen unean, txoriak mintzo diren eta eguzkiak ihesean agurtzen gaituen arratsalde ixil horietako batetan lasaitasun osoz irakurtzekoa zela ohartu nintzen; noraezean, infinituari begira denbora eta espazioaren mugak hautsiz, hutsean, deusan zoraturik zure barne barneko guzti hori, agian sentimentu izenez ezagutzen dugun hori edota musikaz liluraturik daukazun arima gorde hori dantzan hasiko da eta liburu honetan irakurriko duzun guztia zure barneko guzti horren lekuko izatera pasako da.

Liburutxo honetan Emily poeta-ren biografia, gutunak, poemak, epigramak eta apokrifoen bilduma bat egin digu Patxi Perurenak. Bilketa aberats honen bidez Emily-ren pertsona deskribatuz bere izaera berezira hurbildu gaitu, honela zuriz jantziriko emakumearen lilura purua, birginitatea baino gehiago, bere sakoneko bakea, garbitasuna eta osasunaren sinbolo izanik. Liburua, eta zehazkiago esanda Emily bera sinboloz jositako pertsona bat da, hare gehiago esango nuke bera osotasunean harturik ere sinbolo bat dela, sinboloak erreala eta erreala ez denaren mugak hautsiz haruntzago doan expresioari lekua utziz erabilitako imaginak direla kontutuan izanik.

Ez dugu pertsona arrazionala bera, eta aurretik aipatu beharra daukat zer den esatera ezinezkoa dela, horretarako liburu osoa hemen berriro idatzi beharrean aurkituko ginake. Beraz, liburu nolakoa den edo zertaz ari den esatera definizio bat ematera litzateke eta hori ezinezkoa dela esatera ausartzen naiz; hain zabaladaren baso honetan milla gauza harri-garri eta beraien artean guztiz diferenteak direnak aurkituko bait dituzu.



EMILY

Patxi Perurena

Liburu osoan zehar Emilyk bere gogoetak, literatura ispilutzat erabiliz erreflexatu dizkigu, beraz bertatik harturiko iraguztien zehaztasunik ezin da adierazi. Gogoeta haue-tan bere barne barnera jo du eta nolabait pake sakon bat fondoan izanik koadro bat osatuz joan da, honetarako pintzelada asko eman ditu, kolore eta erritmo askotako pintzeladak.

Honela bada, Emilyk izatearen arazoa aztertzen du eta bizia berari

buruzko milla galdera egitera joko du; biziari buelta emanez atzera begira, garenaren sorburua bilatuz, herri-rik gabeko pizti basati batek bezala iturri freskora joaz, berak bere iturrira joaz gizonak bere etorrerari buruz galdetzen dirauen antzera.


Baina Emily bizia bera da, desioa eta enigma elkartuko dituen hori; izatearen arazoa, errealitate baten existentziaren galderan murgildurik Niarren ukatzera darama, den guztia den bezala azalduz, bertan logikak eta arrazoiak parte hartzen ba dute ere haruntzago doan bizia elur malutak bezain sinplea izanik. Bizia, bera dena bait litzake eta bera, Emily, maitasunaren adierazgarri da; pertsona baten aurrean arnas estuka hastean eta bihotzaren taupada azeleratua dantzan hastean nolabaiteko hotzikara sentitzen duzu gorputz guztian zehar eta hori bera da Emily-ren aurrean sentitzen dena.

Emilyk maitasunaren lilura erreflexatzen digu, horregatik ez daiteke definiziorik eman Emilyz, maitasuna bizia bezain misteriozkoa delako, maitasuna bizia bera delako gorde egin behar da, askatasuna bera gure baitan gordetzen dugun antzera.

Honela, begirada sakon, malenkoniatsu eta aldi berean serenitate kutsu horrekin, Emilyk, heriotzari barre egiten dio, loa luze horretan ez dio beldurrik gorputza eta arimaren hiletak ixiltasunean egiten direlako, eta ixiltasuna da den erreala, dagoena, den bezala delako eta horri buruz ezin juzgatu.

Bukatzeko liburu osoan zehar azaltzen diren zitei ere leku egin behar zaie, motzak ba dira ere espazio zabalean kokaturik bait daude. Esanahi haundiko zitak dira, zehaztasun osoz eginkoak eta Emily-ren irakurketan nolabaiteko ispilu dira. Liburuan nonbait irakur daiteke literaturari buruz hitzegitean, ideien ordenatzearen azalpen bat dela eta horri eutsiz Emily berak literaturan, bai irakurketan eta baita idazlanetan ere hori bera erakutsi digu, erreflexio guztien bilketa bat.

Guzti hau esanda, liburu zoragarri hau irakurtzera gonbidatzen zaituztet eta ondoren, (irakurriko duzuelakoan nago) ohartuko zarete hemen jarritako hitz mordo hau ez dela liburuaren zati txiki baten adierazgarri ere, lan sakon bat merezi duen liburu bat bait da. Beraz, liburu nolakoa den jakiteko eta Emily zein den ezagutzera ailegatzeko, liburu behin baino gehiagotan irakurtzera jo beharko duzue.



IGERIKETA

Igeriketak bizitzari edo ekintza normalekiko, bi ezberdintasun nagusi ditu; alde batetik gorputzaren posizioa, eta bestetik arnasketa.

Normalean oinez ibiltzerakoan gorputzaren posizioa bertikala bada, igeri egiterako an horizontala izan behar du.

Ez dago igeritzeko estilorik, igeri egiterakoan gorputza bertikalki mantentzen denik, aurreratzeko oztopo haundiak izango bait lirateke.

Beste desberdintasuna, aipatu bezala, arnasketa da. Lurzoruan gaudenean esan genezake arnasa «ohartu gabe» hartzen dugula (ez goaz kalean esanez orain arnasa hartu orain ez...).

Uretan ordea, era koordinatuan egin behar dugu, beti denbora gehiago egokituz botatzeari hartzeari baino.

Lurrean sudurretik hartu eta ahotik botatzen dugu; uretan berriz alderantziz egite dugu, hain zuzen, ahotik hartu eta bi era hauetako batean botatzen dugu: sudurretik eta ahotik aldi berean edo ahoa itxiz sudurretik bakarrik bota.

Hala ere era agokiena lehenengoa da.

Igeriketak garrantzi haundia du zenbait eritasunen errehabilitaziorako (bizkarra, lepoa, hankak, besoak, e.a.) sendagile gehienek, aipatutako atalen batean lesiorik sortzen bada, igeri egitea agintzen dute, atal hori ongi senda dadin.

Errehabilitazioa egiteko garaian, nahiz itsasoan nahiz igerilekuan garrantzi haundikoa da uraren tenperatura: igeri egiteko egokiagoa bait da ura freskoa egotea beroa baino, ur beroak igerilaria asko nekatzen baitu.

Atal berezi baten errehabilitazioa egiteko orduan ordea, gauzak desberdinak dira denbora gehiena geldirik egoten baita, kaltetuta dagoen atala mugituz soilik, horregatik egoera honetan tenperaturak altuagoa izan behar du.

Igeriketan lau estilo guztiz desberdinak daude: libre estiloa (croll), bular estiloa (braza) bizkar estiloa eta tximeleta estiloa.

Lau hauek Olimpiako deiturikoak dira.

Estilo hauen ezaugarri batzuk honako hauek dira:

—Croll: estilorik azkarrena da.

—Bizkar estiloa: bizkarrez igeri egiten den bakarra da.

—Bular estiloa: mantxoena da baina oso erabilgarria.

—Tximeleta estiloa: modernoena eta nekagarriena da.

Estilo guztietan aurreratzeko, eskuetaz baliatzen gara, halaere, hankak ongi mugitzen badira aurrerapena haundia izango da.

Hanken betebeharrak nagusia, gorputza horizontalki mantentzea da; izan ere hankak mugitzea uzten, badiogu, pixkanaka-pixkanaka gorputzak posizio bertikala hartuko bait du, eta lehen aipatu bezala posizio horrek aurreratzeari oztopoak jartzen dizkio.

ENRIQUE GOMEZ

laisterra


Laisterrari buruz zenbait gauza esan nahi ditut.

Herriko krossa ospatzen dugunean poza haundia sentitzen dut hainbeste jendeak parte hartzen duela ikusten dudanean. Baina nere ustez laisterra ez dugu utzi behar lehiaketa maila hortan bakarrik baizik eta gure osasunarentzat baliagarri edo onuragarria den zerbait bezala.

Bide hontatik zuzenduko nuke laisterra, hau da; osasunerako baliagarria den zerbait bezala. Horrekin ez dut esan nahi laisterra bakarrik dihoala bide hortatik; edozein kirola egiten badugu nolabait gure osasuna zaintzen dugu, esaten den bezala: zangoak mugitzen duenak bihotza mugitzen du.

Beraz Kirola horrela ulertzen dut (nere kirola edo nik praktikutzen dudana laisterra denez):

Laisterra ez dugu utzi behar lehiaketa maila batean soilik nahiz eta hau ona izan; laisterkaren funtsezko oinarrian badago beste zerbait askoz ere baliagarriagoa dena (neretzat behintzat) eta hau GURE OSASUNA da.



BUZTINA

Buztina mahai gainean ikusten dugunean, material hutsa baizik ez da; buztina soil soilik, irudien munduan deus ere ez oraindik. Modu batera eta bestera, tresna bat edo bestea erabiliz, nahasten eta antolatzen hasi ezkerro, mila forma eman dakioke. Deus ere ez zen hura, behatz artean, freskoa, alaia, bizia, aldakorra, gaztea, irudimentsua, bihurtzen da. Bere baitan (bere baldintzen ariora, noski) edozein gauza izateko gaitasuna, posibilitatea dauka.

Prozesu baten ondorioz zerbait itxuratzen hasten da, forma konkretu bat hartuz. Azkenik, irudiak iraun dezan, gogortu dadin, hozten utzi beharko zaio. Une honetan buztina, material hutsa besterik ez zena, zerbaiten irudian bihurtuko da, zerbaiten forma hartuko du. Baina hoztu ondoren, gogortu ondoren, aldatzen saiatu ezkerro hautsi, desegin dakiguke; ez bait du orain bere baitan aldakortasunik. Den bezalakoa da eta kitto! Ez dago lehen zenari itzulzerik.

Gizona, jaio, bizi eta hil egiten da. Hau beti horrela izandu da, eta gizon guztiei loturiko errealitatea da. Ez dezake inork bide hau ez ukatu ez saihestu!

Pertsonak ere, buztinaren antzera garai berezi bat izaten du, non hezea, freskoa, alaia, bizia, irudimentsua, sasotsua, aldakorra, senditzendena; eta edozein «gauza» aldatzeko posibilitatean dagoena. Hauxe da «gazte» garaia, gizonaren tenorerik sasoietsuena. Behin garai hau pasatu ondoren hoztu, gogortu egiten da eta aldaketarik ez du onartzen, ez du ikusten.

Gu gazteok gizartearen etorkizuna, itxuraldatzea, geure eskuetan daukagu. Gure erresponsabilitateaz ohartzen gara? Hainbeste gauza dago aldatu beharra!

Ur ttantta batek ez du ez itsasoa egiten, ez eta ere hosto batek zuhaitza. Baina ur ttanta bat eta beste bat, eta beste bat, eta beste bat; hosto bat, eta beste bat, eta beste bat...

biltzen, batzen baldin badira... orduan... bai, denen artean itsasoa egiten dute, zuhaitza osatzen dute.

Ez ote dago gure gizartearen, gure herriaren deus ere hobetu beharrik, aldatu beharrik?

Agintzen dutenei, poderea beraien eskuetan dutenei, lasai eta gustora daudenei, besteen izerdiari esker bizi direnei, injustiziaren bidez agintzen dutenei, ez zaie gauzak aldatzerik komeni, ez horixe. Gu gazteok ixil ixilik eta ahal den tontottuen bizi gaitezen komeni zaie, beraien gustora bizi eta gauzak berdina jarrai dezaten.

Lehengo gazteak, gaur egunekoak, eta biharkoak oso ezberdinak gara. Egoerak, garaiak, ohiturak, beharrak, e.a. asko aldatu dira, pertsonak ere asko aldatu dira (azken urte hauetan batez ere). Baina beti, lehen, gaur eta gero, etorkizunaren itxaropena gazteen eskuetan dago, egondu da eta egonen da.

Gu gazteok ekologistak omen gara, gizon-emakume berriak, ezberdinak. Ez dugu gizarteak, gurasoek eta abar inposaturiko gauzarik onartzen. Libre izan nahi dugu. Gure eskubiak eten gabe aldarrikatzen ditugu. Baina...

Gizartearen aurkitzen ditugun gauzetatik gustokoak aurkitzen ditugunean ahal dugun neurrian gehienak dastatzen eta aprobetxatzen saiatzen gara. Erretzen dugu, edaten dugu... Libre izan nahi dugu, gure erara jantzi, orraztu... Moda jarraitzen dugu edo geure moda berezian sartzen gara.

Libreki jokatzeko ote dugu? Ez ote gara zerbaiten ihesean leize zulo baten sartzen ari ote? Ez ote gara «zerbaiten» menpeko mixerableak bihurtzen ari ote?

Oraitxe da gure garaia, gero beranduegi izanen da. Zer eskatzen diogu bizitzari? Zer aldatzea gustatuko litzaiguke? Zerbait egiten dugu, saiatzen gara? Errealitatea, gauzak

diren bezala ikusten saiatzen gara? Edo ardien antzera artaldeari jarraitzen diogu, itsu itsuan, pentsatu gabe, korronteari jarraituz? Konzientekak gara edo manipulatu egiten gaituzte? «GU» izaten saiatzen gara?

Euskaldunak omen gara, Euskadi omen dugu maite. Baina guk, normalean, egunero erabiltzen dugun hizkuntza ez da ez euskara. Zertan gabilta? Ez ote gara gauza konzienteki jokatzeko? Ez ote da ba egia izanen «hizkuntza bat ez dela galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako dakigunok erabiltzen ez dugulako baizik»? Ez ote dugu ba ikusten zenbat jende ari den eten gabe, jo ta ke, ikasten? Ez ote digu ba lotsarik ematen Nafarroako beste herri batzuen borroka ikusi, beraien nahigabearen, ahal dutena egiten nola saiatzen diren ikusi eta gu... etxean izan... geurea izan... amaren magalean ikasi... eta hiltzen uzteak?

Zer ez ote genduke lortuko gazte guztiak elkartu eta borroka eginez egoerak aldatzen saiatuko bagina? Nork esango ote liguke euskaldunak ez garenik edozein tokitan, zahar eta gazteak, kalean, etxean... euskaraz mintzatuko bagina, bagenu?

Txorakeriak alde batera utziaz, pertsonak errespetatuaz, ezberdinak garenak elkarrekin bizitzen ikasiaz, justiziaren alde borroka eginez, buru argiekin, inork manipula ez gaitzan, iragana atzean utzi eta beste oportunitate bat emanaz herriari, nork esan lezake biharko egunaren itxaropena eta animoa ez garenik?, nork, geure buruen jaun eta jabe ez garenik? Nork zernahi dugun ez dakigunik? Nork libertatea maite eta geureganatu nahi ez dugunik?

Buztina ere sasoirik hoberenean moldatzen ez baldin bada, gogortu ondoren, garaia pasatu ondoren, mugi ezina, aldatu ezina bihurtzen da. Orduan ez dago deus egiterik, bereak egin du.

Ez ote da ba hau gure garaia? Ez ote du ba benetan merezi?

«Justifika ezina den autobide horri ezetza emateko arrazoiak»

Ilargi Beltza

Azken urte honetan informazio franko zabaldu izan da gai polemiko honetaz, informazioaren egarri zen edonorentzat jakina. Horretarako egin dira hainbat hitzaldi, diapositiba erakusketak, egunkari eta aldizkarietan agertu diren karta eta eritziak lagun, proiektuaren egileek eginez dutena, hainbestetan salatu dugun informazio ezkutapen horri erantzunetik ahalik eta argumentazio puntu gehien izan zezan jendeak hain zuzen.

Hala ere eta zoritxarrez, hemen herrian jaso ahal izan dituan zurrumurruetaz hala antzematen diot beñeipein, gure ahaleginak ahalegin, jende ugari geratu da autobideaz lehendik zauzkan lau ideia kaxkar haiek besterik gabe, baina ez guk emandako informazioak konbentzitzen ez duelako, ez dakit zein motiborengatik (beraiek jakinen dute) bitarteko ofizialek eman dioten berriaz kanpo besterik jakin nahi izan ez duelako baizik.

Egia da norberak nahi duena egin dezakeela, baina hain jarraia eroso, egoista eta partzialistari oso triste eta hipokrita derizkiot. Egun informazio oro zein manipulatu, zenbat aspikeri egiten den eta zenbat interes dagoen horren atzetik ikusirik, nola izan gaitezke hain inozoak ematen diguten guztia (eta hau esaterakoan goitik datozkigun gezur ongi hornituetaz ari natzaizue) batere pentsatu gabe irensteko? Horrexegatik, horrela geratu den jendea irren eskatuko nioke deus esan aurretik berri guztietaz, bai alde batekoaz bai besteakoaz ongi jatzeko.

Hori alde batera, idazki honetaz baliaturik zenbait gauza argitzeari eman nahi nioke bide. Ekologiaz eta mugimendu ekologistetz hitzegiten denean, gure etsai edo gurekiko mesfidantza izugarria dutenek usu erabili izan dituzten argudio eta mespretxuak erantzun nahi nituzke. Lehenik eta behingoz argi gera bedi, ekologia maitatzeak eta ekologista izateak ez duela esan nahi progresoarean aurka gaudenik eta ondorioz paleolitikora itzuli nahi eta behar dugunik. Aitzitik, guk progresoa ekarri dituen alde onak onartzen ditugu, baina inola ere onar ez dezkeguna da progresoarean izenean egiten diren astakeri eta kirtenke-riak. Gauza bat baita progreso razionala, orekatua deritzaiokeguna eta bestea hagitx bestelakoa dena progreso irrazionala eta muga eta neurri gabekoa. Gaur egun ezagutzen duguna azken hau baino ez da. Hor daukazue autobiareneen enplua, ezin adierazgarriagoa.

Autobidea hartzen badugu kasutzat, bi konzeptzio edo jarraia hoiek ederki nabarmentzen dira.

Batetik, ikuspegi desarrolista, progreso irrazionalaren oinarri litzatekeena genuke. Ikuspegi honen bultzatzaile zein defendatzaileek, ahalik eta etekin ekonomiko gehien izatea (beraiek noski eta ez guk), Europari, hainbeste izurratu gaituen erraldoi horri lotzeko komunikabide azkar eta zuzen baten behar ase-kaitza izanik helburutzat, ordaina edozein delarik autobia deritzaion triskantza monumental hori onartzeko eta gauzatzeko pres daude, irrikitzen esanen nuke. Sarrión enpresarentzat (ez langileentzat, hauek beti bezala morroi izanen baitira) oso mendedarri eta komenigarri litzatekeela diotenak ere, ikuspegi ankamotz horren barruan sartuko nituzke, Sarrión eta bere eskoria gure zapaltzaileak izanik, bere ohoretan Leizaran eta oro har gure ingurunea sakrifikatzea zilegitzat ikusten bait dute.

Ikuspegi hau defendatzen dutenen artean, ez nituzke aipatu gabe utzi nahi zenbait medio-ambientalista, oso mendizale eta naturazale direnak itxuraz. Hauek zuhaitzen birlanaketak egin behar direla, mendia zaindu behar dela, astebukaeretan eguna igarotzera mendira joan eta ay zein ederra den hau esaten duten

bitartean progreso eta komunikabideen hobetzea aitzaki autobidea onartzen dute. Denak dakigu nortzutaz ari naizen. Hauentzat badut galderatxo bat, nola arraio ezkon daitezke bi joera hoiek, minimoki koerente izanez gero behintzat? Ez al da benetan farregarria eta ulerkaitza batera?

Guzti honek beste jarrera bat gogoratzea garamatza, erabat aurkakoa dena, nolabait oreka bilatu nahiko lukeena eta aurreko guzti hoiek hainbeste beldur diotena. Hori helduz, guk ere komunikabideak hobetu behar direla pentsatzen dugu, horrela adierazi izan dugu behin eta behin. Honek ez du esan nahi ordea, komunikabideak hobetzeko irtenbide bakarra eta egokiena autobidea denik, administrazioak eta proiektu hori ororen gaine-tik gauzatu nahi dutenek hori sinistarazi nahi badigute ere. Badaude beste irtenbide batzu askoz ere lojikoagoak eta razionalagoak liratekeenak, bai ekolojikoki bai ekonomikoki begiratura. Azterketa sakon baten ondorioz lehendik dauden karretera zaharretan egin daitezkeen konponketa, moldaketa eta hobekuntzaz ari natzaizue hain zuzen.

Azken honetaz jakin arazi, koordinadorak alternatiba hori bidezkoztat ikusirik, sarritan eskatu izan diola administrazioari ardura eta lan hori bere bizkar har dezan, berari bait dagokio autobiarekin egin duenaren antzera teknikoak eta dirua jartzea.

Honekin loturik, adierazi, eusko jaurilaritzako teknikoek duela gutxi argitara eman zuten informe baten arabera, negatibotzat jotzen zela autobide proiektu hori, koordinadorekin bat etorritik. Honez politiko eta teknikoaren artean dagoen alde eta herri honetan azken hitza nortzu duten egiaztatzen digu. Horretaz gain esan baita ere, koordinadorekoek diputazioarekin izan dituzten hizketetan, azken hauek lehenengoei arrazoi ematera iritsi izan direla, baina hala era beren asmoari gogor eusten diotela adierazi.

Ondorioz, batek gal diezaioke bere buruari, ea zergatik duten horrelako enpeinoa legezko ez den proiektu hori aurrera eramateko (hori gainera, autobide hori legez kanpo dagoela ez ahaztu), eta nolatan ez dituzten beste aukerak aztertzen. Erantzuna nahiko sinplea dela uste dut.

Gogorazi, beraiek jendea azaldu izan dizkioten arrazoiak atzetik badaudela beste zenbait interes ezkutatu, inoiz argituko ez dituztenak gainera. Gure kanpainan sarritan salatu genuenez, enpresa konstruktoreen interesak tartean daude. Hauentzat antzeko obra bat oso desiragarria da, diru publikoari esker beraien patrikak kilo mordoz gizen bait ditzakete. Aldi berean, guztion jakinean dago politikoek enpresa hoiekin oso harreman hestua izan ohi dituztela, halaber hoien esanetara azkarrago makurtu ohi direla gureetara baino. Horreraz gain ezin ahaztu politikoek geroan beraien izenak gosestua eta koroiatuak izan daitezkeen, eraiketa faraonikoak burutzeko duten berezko joera txalogarri hori.

Jakin izan dugunez, plan militarretarretatik ere ez dabil oso urruti. Itxura denez, OTAN eko goi mailako ingenierritzan jakintsu direnek Pirineoetatik honuzkaldeko lurraldea, European inbasio bat gerta daitekeenaren beldur edo, puntu estrategikotzat jotzen dute. Baldin eta tropa, zein biztanle mobilizazioa egin beharko balute, bide azkarrak eta zuzenak eskatzen dituzte. Azken honek aurrekoekin batera, bai uler araziko liguakea autobia hori egitearen zergatia. Beraz, kontutan izanik gainera herri honek OTANi ezetza eman ziola, autobia ere ezetza emateko arrazoi sobra dagoela uste dut.

AMETZETAN

Goazen Joxe, Maxurreneko intxaurren itzalera. Zuk esan bezela intxaurre adarrak zubi bat eratzen duten lekura.

Handik ikus dezakegu zuek hainbat aldiz ikusten zenuten ilargi eder hura. Gaur egun urruti dagoen herrialde maitagarri hortatik, ikusten duzun ilargi berbera.

Ez zitzaidan sekula bururatuko orain dela 50 urte herri maite hortatik joandako mutil gazte hura, herri minez bizi zitekenik.

Zu ezagutu ondoren (Martxoaren 19an) hitzez ezin adierazi dugun zer bait gertatu zaigu. Sorterriak gure barrenean daraman grina askaezina dela gogoratu diguzu. Horregatik, hor doaz zuk gure Leitzako herri maiteari eta bere inguruari egindako bertsoak.

San Tiburtziotako aldizkari berezian azalduko dira. Herritar guztiek irakurriko dituzte: zu lehendik ezagutzen zintuztenek eta hemendik aurrera bertso hauen bidez ezagutuko zaituztenek.

Orain dela 50 urte Hego Ameriketara joan zinen 14 urtekin, Moron izeneko herri haundi batera. Naiz eta zure gorputza Argentinan egon, Leitzako herrian utzi zenuen zure bihotza.

Hau da Joxe Iturrarte Garmendia, «Serapiona» bezela ezagutzen genuena.

M.^a JESUS ARTXIKONEKOA

Maixurreneko intxaurreri

Maixurreneko intxaurre
itzalpen zubie
erreka ezagutzen du
euskeraz ardie.
Emendik ikusten dut
euskal illargie
mendiko bide orik
ezin aztu die.
Soroko gaztainerkin
ametsa aundie
Iturrizar urekin
eztarrin ez tie.
Ipuruk ekartzera
mutikoak joan die
arren azpin lotan da
axuri txurie.

(José Iturrarte)

HIRE BEGI

Urdinen aztetik
ibili naiz goiz osoa.
Ezin aurki, baina, inongo
bazterrean. Maite haut,
agian niretz ez haiz oroituko
edo eta madrilgo gizartetik
ihes, nire argazkia
bihurtuko da hire lagunik onena.
Halere nire buzoia
hutsik zegok; ameraunetz
betetzen hasi da; ez du
inork bixitatzen eta.
Gaur ez duk nire eguna
kaskezurreko min izugarria
jarri zaidak.
Hire irribarrea zinema hortako
karteldegian agertu zaidak...
nire ikasketak jarraitzen dizkiat;
baina azterketak hasi direla eta
eztarri belarri eta ez dakit non gehiago ere
mina jarri zaidak.
Maite haut. Berriro ere errepikatuko diat,
eta ez naiz inoiz aspertuko...
Joan nahi niak hirekin
munduko azken muturreraino...
Autobus geltokian niagok
ea noiz abiatuko etxera.
Maite haut.
Badakik? Harrapatua sentitzen nauk,
esku eta hanketatik lotua somatzen
diat neure burua.
Ihes egin nahi niak; ez zekiat
nora eta zertarako
baina... Maite haut.

Garbiñe Sagastibelza

— GERNIKAKO BONBARDAKETARI —

Makinarik gabeko argazkia (sentipenazkoa).
Arrats gorri odoltsuak,
zeru sapaletan,
Gernika erre ta kiskaltzen,
su garretan,
alemanen hatzaparretan.
Frankok eta Molak Salamankatik
agindu eta erakutsi.
Bonba arrotzez txikitu
urratu ta hautsi.
Keia, galda eta haragi errearen usaia,
kiratsa ugari.
Sua itzaltzeko urik ez...
Egarri gara bai, egarri,
ur eta askatasun egarri!
Urik ez...,
askatasunik ez...
Herio-sur denak iheska
dirudiela azken juizioko gatazka.
Hegazkinen ereta soinue
eta bonba ziztu miñe.
Hilak pilaka,
zaurituak odolez ziprztindutako lurrean
larri miñetan,
ezinaren ezinez odol hustutzen.
Bien bitartean etsaiek odolez horditzen...

Aiton-amonak atariko intxaurrean daude
nahigabeaz beteak
erretako etxeari
begira,
aitona negar isilean
begietatik malkoak isuriaz
amona errezo eta negar
saminez urtzen,
semea hila, biloba hanka eta besoa moztuta.
Atzo zeru, gaur infernu.
Behiak marruka,
axuriak marrikaka
belarrik ez,
larrea gorri,
haizea lehor
sua kiskaltzaile.
Arrats gorri odoltsuak zeru sapaletan
Gernika erre eta kiskaltzen su garretan.
Alemanen hatzaparretan...

ASTAITZAGAKO MIKELA

BERTSO LEHIAKETA

Larrietan irabazlea: Iñaki Perurena Garziarena (Iñaxio Alparro), 30 urte.

S. Tiburtzio-ak

1)
San Tiburtzio jaia
amaika agoztuak
pestak ditugu eta
gabiltz poztuak
lanerako ardatzak
ditugu moztuak
beti gurekin orain
atabal ziztuak
nekeak aztuak
gorputzak piztuak
trago erreztuak
txampan izoztuak
gero Xakan zezenak
dara gaiztuak.

2)
Zar edo gazte berdina
neska edo mutill
herri guzia gañez
pestetan dabill
parranda egunero
erretirua zaill
txaranga ta soñua
nola egon isill
dana da borobill
ezin da korapill
dantzaren ere abill
humorea ez da ill
naiz eta ondoretik
danok aini humill.

3)
Wiski eta ardoa
koñak ta txampania
gorputza aldaroka
bizkor mingaña
orduak pasatzeko
langeti bikaña
zeñek artuko dio
oneri tamaña
jotzen degu gaña
hori dek azaña
egia ez baña
alkarri engaña
erronkatik gabiltza
fin alajaiña.

4)
Aspalditikan datoz
jai auen zuztarrak
urtean bein biltzen
gera Leitzarrak
kontuetan patxadaz
lengo lagun zarrak
pesta antolatutzen
langille azkarrak
txukundu baztarrak
gure egin bearrak
ez dirade txarrak
otordu edarrak
ai zer goxoak dauden
ollo iztarrak.

5)
Pesta egiten degu
danok alkarrekin
aurrera jarraituaz
oitur orrekin
ongi alkatu gaitz
gazteak zarrekin
munduan ez da ezer
gorroto zurrekin
ez itz zakarrekin
kontu zakurrekin
joko maltzurrekin
ta gizon txarrekin
bide zuzen bat artu
ta bizkor ekin.

6)
Pakea opa dizutet
Leitzako anaiak
pakean pasatzea
herriko jaiak
danon gogoko dira
ain egun alaiak
jatortasun beteko
arremman lasaiak
baztertu etsaiak
gorroto usaiak
zaill daude garaiak
aurkitu artzaiak
Leitzarren onerako
dauzkat nik naiak.

7)
Kampoko jende dana
Leitzarrekin nasi
alkar errespetatzen
ongi ikasi
gero ez dedin izan
zikin edo sasi
alkartasun jatorrez
kompondutzen asi
Ferminiek Inasi
Antonik Tomasi
nahi nuke ikusi
ez baita itxusi
San Tiburtziorekin
pesta nagusi.

8)
Pestak izaten dira
alkarganatzen
ezer ez da eskatzen
emen sartzen
batzuk izan gaitzen
besteen antzeko
egun zoragarriak
gogoan artzeko
alkar agurtzeko
tristura urtzeko
giroa sortzeko
ta poza lortzeko
baita San Tiburtzio
eskertutzeko.

9)
Eskerrak Tiburtzio
gure zaindaria
Agoztuan Leitzarren
zuzendaria
zaindu gure herria
ta agintaria
zure laguntza beti
ain da ugarria
gure janaria
lanaren saria
oso nabaria
zure oparia
eskertzeko daukazu
bertsolaria.

10)
Baketin asi eta
ara emen amar
ez pentsa moldatuak
diranik azkar
batzuk erdi justuan
beste batzuk kazkar
politik bai alda
asko daude zakar
saiatu naiz bakar
orrek hori dakar
artu bear alkar
egiteko indar
errurik baldin bada
da nere bizkar.

Gaztetan irabazlea: Jon Oronoz Zubillaga (Urki), 11 urte.

1)
SAN TIBURTZIOKO festak
dauzkagu berriro
espero dugu pasa
daitezela-astiro
ongi pasatutzeko
badaukagu giro
mozkortzen gera festak
datozen aldiro.

2)
Nahiko musika eta
goizetan zezenak
txaranga-handi bat eta
gabetan berbenak
hauek guztietara
joaten gara denak
festak bukatu eta
orduntxe bai penak.

3)
Zezenekin egiten
dugu nahiko parra
bainan argi-ibiltzeko
badaukagu bearra
sartutzen badigute
ipurdin adarra
gogo handiz egingen
dugu denok «nearra».

San Tiburtzio

4)
Neskak egoten diren
plazaren aldera
bilatzen dugunean
joateko aukera
pozik dantzatzin dugu
haiekin batera
balsa hasten danean
alaitutzen gera.

5)
Gu alautso ibiltzen
garen bitartean
«Aurrera» egoten da
«Jo ta ke» lanean
«Klub» langila honeri
eskertu beharrean
egondu gara denok
aspaldi-aspaldian.

Urki, 11 urte

ARGAZKI LEHIAKETA

Dinarriak:

—Herritarrentzat ba-
karra.

—Gaia: pestak.

—Parte hartzaile ba-
koitzak 5 argazki aur-
keztuko ditu gehienez,
hauek koloreetan izan
beharko dute.


—Neurriak: 10x15
(normalak).

—Argazki irabazlea
egitarauaren azalean
jarriko da eta gainera-
koekin Aurreran era-
kusketa bat egingen da.

—Parte hartzaileek
antolatzaileen eraba-
kiak onartu beharko
dituzte.

—Antolatzaileek,
aurkeztutako argazki
guztien gain eskubide
osoa izanen dute.

IPUIN LEHIAKETA



Larrietan irabazlea: Ima Zestau (Lala), 23 urte.

GAUR GOIZEAN JEIKI NAIZ...

Zortziak dira. Erlojuak txirriña jo du eta egunero bezala jeiki naiz. Oraindik Faustinoen berotasuna eta usaina mindare artean gordeta daude. Honez gero lanean ariko da. Gaur ere ez nau agurtu.

Pixa egin dut eta dutxatu ondoren pixkat erlajatu naiz. Irratiak esan du gaur eguraldi ona egingen duela. Ionen galtxamotxak plantxatu ondoren bere ohetxo berotik aterarazi dut.

Gosaltzen ari ginen bitartean atzo Ne-reak ikastolan muxu bat eman ziola esan dit:

—... eta orduan nik bi eman nizkion eta andereñoa etorri zen eta esan zidan kanpora joateko eta ...

«Lasai, haurtxo!» —pentsatzen nuen nirekiko.

Ikastolako autobusara eraman dut; Ne-reare-n eskutik joan da.

Faustinoen pijama burko azpian utzi dut ohea egin ondoren. Ionen jostailuak bildu ditut eta bart gaueko ontziak ganbitu ditut.

Ontziak jaso eta ontziak berriz erabili bazkaria o prestatzeko, hautsak kendu, Faustinoen kopa telebista aurreko nahai gainetik, Fariasen mutur iluna zakarrera bota...

Porrusalda egin diot Faustinoari eta markarroiak Ioni. Nik entsalada bazkalduko dut.

Ate soinu!!! Faustino dator; ixila, beti bezala. Sukaldera etorri da eta bere ezpain beroak sentitu 'ditut masailan. Itzuli natsaio eta hiru arroxa gorri eskaini dizkit irrifarrez.

—Ai, Faustino!!! —eta bihotz taupadak ezin eutsiz bion artean zimurtu ditugu lo-reak bukaerarik gabeko besarkada batean.

—Maria!!, Maria!!, Altxa!! —entzun nuen. Ez nituen begiak ireki nahi, hain gustora nengoen!

Oihu kexati batzuk entzun nituen; harrituta, begiak irekitzerakoan ohean nengoen Faustinoen alboan.

—Maria, Ion negarrez ari da! joan zaitez ea zer duen ikustera! Ametsak nere nahi erreprimituak isladatzen zituen.

Ion ixiliarazi dut, Faustino lanera joan da, erlojuak txirrina jo du, pixa egin dut, dutxa on bat hartu dut, irratia piztu dut, gosaria prestatu dut eta...

LALA

ESPAZIAL UNTZIA

Gaztetan irabazle: Amaia Mariezkurrena Zabaleta (Odeitxo), 12 urte.

Bazen behin lagun talde bat «Izarra» izena zuena. Oso talde bitxia zen hura. Era, guztietako haurrak zeuden: beltzak, txuriak, txinoak, gaponesak, ingelesak eta abar. Kapitaina Japonesa bat zen. Eta behin esan zuen kapitainak:

—Zergatik ez gara txatarrerira joaten?

—Zertarako? —Galdetu zuen Txinoak.

—Ba... nire ideia zen espaziontzi bat eraikitzea eta beste planeta batetara joatea!

Eta beste aldetik galdetu zuen beltzak:

—Zer da espazio untzia?

—Ba... ez dakit esplikatzeko, baina marraztuko dut nolakoa den. —Ekarri ezazue arkatz bat eta papera!

Segiduan ekarri zuen ingelesak kapitainak esandakoa. Segiduan marrazkia egiten hasi zen. Eta esan zuen amaitu zuenean:

—Begira, hau da espaziontzia! Esan zuen paperara begiratu.

—Bai eta Jupiterreara joango gara! Esan zuen txuriak.

—Goazen azkar txatarrerira. —Esan zuen kapitainak.

Eta hala egin zuten. Joan eta esan zioten txatarreriko gizonari:

—Emango al diguzu txatar pilo bat?

—Eta zertarako duzue txatar pilo bat?

—Ba guk, espaziontzi bat eraiki nahi genuke! Eta hortarako, txatarra behar dugu.

—Bai, bai! Tori, zuek behar duzuen. Aiba!

Eta etxera eraman zuten. Eta kapitainak esan zuen bidean:

—Beno! Gaur hasiko gara! Goazen azkar!

Ailatu ziren eta... segiduan hasi zuten lanean. Gau eta egun egondu ziren lanean.

—Azkenean bukatu dugu! —Esan zuen kapitainak.

—Eta noiz joan behar dugu Jupiterreara? —Galdetu zuen Ingalaterrakoak.

—Eta zergatik joan behar dugu Jupiterreara? Zergatik ez beste planeta batetara? —Esan zuen txinoak.

Eta biak hasarretu egin ziren.

Kapitaina etorri eta zaplastako bana eman zien. Eta esan zien oso haserretuta:

—Ez zaitezte hasarretu! Gainera, gure untzian, ez dugu zuek bezalako tontoen beharrik! Ez ba zarete oraintxe paketzen ez zarete gure untzikoak izanen!

—Bai! —Esan zuten biak batera.

—Gero elkarri barkazioa eskatu ondoren oso lagunak egin ziren. Hurrengo egunean zortziretan plaza ondoan elkartu ziren. Joan ziren untzia zegoen lekura eta abiatu ziren.

—Noiz ailegatuko gara? —Galdetu zuen beltzak geroago aspertuta.

—Lasai, segiduan ailegatuko gara eta! —Esan zuen kapitainak.

Handik ordu batzuetara ailegatu ziren Jupiterreara.

Han Jupiterren, ailegatu ziren eta aurreneko gauza egin zutena Jupiterreko herria joatea zen. Jupiterrena zuen izena Jupiterreko herriak. Han beltza askotan izan da zen eta bazituen lagun asko eta bazekien hango hizkera ere. Jupiter nolakoa den esango dizuet:

Jupiterren herri askotan bezala bere hitzegiteko modua dauka.

Han Ingalaterran bezala ingelesez edo Txinan bezala txinoz, Jupiterren Jupiterrenaz hitzegiten da. Beltzak oso ongi zekien Jupiterrenaz. Jupiterreko gauzak oso desberdinak dira. Jupiterreko pertsonak nolakoak diren esango dizuet: urdin kolorekoak dira, begi bat daukate, bi sudur, lau belarri, bi aho, bat bestearen azpian, buru handi bat, gorputz txiki-txikia, hanka bat, eta bi beso. Beso bakoitzean hogeitazetaz eta hanka batetan lau behatz.

Haurrak ailegatu ziren Jupiterrenara eta harrituta geratu ziren. Denak beltza eziz. Beltzak lasaitzeko esan zien denek. Beina horrekin ez zuen ezer lortzen.

Azkenean denak beldurtuta untzira sartu ziren. Beltza ere bai. Etxera joan ziren eta gehiago ez zuten espaziontzirik eraiki, ezta ere inongo planetetara joan.

Odeitxo

ANDRE BIHOTZ GABEA

Umetan irabazlea: Eneko Ses-tau Aranibar (Enetz), 8 urte.

Orain dela urte asko eta asko bazen andre bat beti eri egoten zena.

Ez zekien zer egin eta medikura joan eta etorri ibiltzen zen beti.

Behin bihotzak ihes egin zion eta andrea bere atzetik ibiltzen zen. Bihotzak egun batean autoa hartu zuen baina Afrikako bide erdian txoke bat izan zuen. Andrea oso kezkatutik zegoen, ez baitzuen ezta idearik ere bere bihotza non zegoen.

Andrea zahartu egin zen eta bere bihotza ere zahartu egin zitzaion, baina hala eta guztiz ere egun batean bere bihotza harrapatu zuen.

Andreak izugarritzko bronka bota zion eta berriro ere ihes joan zen bihotza.

Andrea Iruñean bizi zen eta bertako guztiek bazekiten zer ari zen gertatzen. Bera ia oso lotsaturik zegoen eta txakurra bidali zuen bila.


Txakurrak harrapatu zuen bihotza eta etxera eraman zuen.

Oraingoan andreak ez zion bronkarik bota baizik eta hiru muxu ederi eman zitzaion eta bihotza pozik bere betiko tokian gorde zen.

ENETZ, 8 urte


DENBORAPASAK

HITZ DORREA



HITZ DORREA: Joko honetan hitzak elkarren gainean pilatzen dira, baina ez nolahi. Hitz batek eta bere hurrengoak parean dituzten letrak berdinak izan behar dute.

1. Egurra
2. HO
3. Nahi izan
4. Adio
5. Diosala
6. Urritzaren fruitua
7. Gure planetaren izena
8. Mara-mara erortzen da
9. Hautsi
10. Ikara
11. Pausoa
12. sua egiteko erabiltzen den gaia.



HONA HEMEN ZENBAIT
HOSTO. HOSTO BAKOI-
TZA ARBOLA BATI DAGO.
KIO. EA ASMATZEN DITU.
ZUN ARBOLA HORIEK.

IGARKIZUNAK

Basoan jaio
basoan hazi
herrira etorri
eta bera nagusi.

(alkatearen makila)

Zer dela eta zer dela
zuloak eginez
zuloak estaltzen dituen?

(orratza)

Zer dela eta zer dela
gauza ez dena
uretan sartu
eta bustitzen ez dena?

(itzala)

Sasi baten azpian bi argi
beherago bi iturri
eta azpiko etxolan
artzain bat eta zenbait ardi.

(ampegi)

Txoko batetan
musika nota bat
te hartzen ari da
Zer ote da?

(txoko-la-te)

Lau saltakari
doaz bide beretik
Elkar harrapatu ezinik.

(zaldiaeren hankak)

TXISTEAK: Geografiaz

Aita, gaur galdera bat egin digute
eskolan eta zuk jakingo al duzu?

- Noski, alabatxo. Zure aitak dena daki.
- Afrika urruti al dago?
- Urruti? Bai zera! Gure fabrikako beltza egunero bizikletan etortzen da eta.

Ama-semeak

-Ama, dio mutikoak, maisuak jo egin
nau Brasil non dagoen ez nekielako.

-Ederki egina. Hurrengoan hobeki begi-
ratuko duk gauzak non uzten dituan!


Balearena

Galdetzen omen dio andereñoak ikasle
bati:


- Baie-haragia jan al daiteke?
- Bai andereño.
- Oso ongi, Maite. Eta zer egiten da he-
zurrekin?
- Platera izkinean utzi andereño.

(Argia)


JEROGLIFIKOAK



NOLA DAGO ARBOLA



GIPUZKOAKO HERRIA



NON BUSTI DA?



- Insektuek ziztada eginez gero:
(erleak, miztorrak edo txingurriak)
Zer egin behar da?

-Kasu arinetan


Erlearena: amoniako tantta bat jarri eta miztoa ateratzen saiatu.

Miztorrarena: ziztadan bikarbonato sodikoa jarri.

Txingurriarena: ozpina edo limoi salda jarri ziztada gainean.

-Kasu larrietan

Ziztada ahoan izaten denean edo zorabioak sortzen badira, sendagilearengana joan.



- Zerbait begian sartuz gero:

Zer egin behar da?

Begia ur askorekin garbitu

Okulistarengana joan

Zer ez da egin behar?

Igurtzi

- Eguzki gehiegi hartuz gero:

Zer sentitzen da?

Buruko mina

Arnasartze geldia

Pultsu motela

Bertigoia

Dardarak, eldarnio (delirio), koma egoera.

Sukarra (berandu azaltzen da)

Zer egin behar da?


Kopetan zapi bustiak jarri

Sukarra baldin badago zapi bustiak gorputz

osoan jarri

Masajeak beso eta ixtarretan

Ur asko edan



ANA

* *Jeuneei denda*

* *Ferta zoriontsuak*
opa dizikione

PATXI ARRAZOLA, 9

Léiza



Pedro Telletxea

- Construcciones
- Albañilería en general

P. Arrazola, 12, 2.º A - Tel. 510580

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Martin Lizarraga

Carnicería y Charcutería

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Telefono 510283

FLORI

BERRITASUNAK

Puntuzko jeneroak
Kortsetegia eta jostura

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel: 510.194 LEITZA

FOTO ARGAZKIAK

MUGICA

Fotos Carnet entrega
inmediata

Fotos Estudio
Ampliaciones
Bodas
Homenajes etc.

Estudio en

Calle Obispo Huarte

Télf: 51 04 40

Fotocopias en el acto

Sala de Fiestas Discoteca

IZAR BERRI



Berriko Zabalik datarren jaietan
Estas fiestas próxima reapertura

Estos días abierto de 2 a 7 de la mañana
Egun hauetan irekita 2tatik 7arte

IZAR-BERRI DANTZALEKUAK

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

PESCADERIA ANA

PESCADOS FRESCOS
Y CONGELADOS
DEL CANTABRICO

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 51 01 18

Zapatería Tirapu

Calzados finos de
Caballero y Señora

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elbarren. 36

Tel 51 00 15

JANARI DENDA ZABALETA

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

TEL: 51 04 28

LEITZA

ARDOTEGIA

BARRIOLA

ARDO ETA LIKORETAKO BILTOKIA
INSALUS, SAN MIGUEL GARAGARDOA
ETA COCA-COLAREN BANATZAILEA

FESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

TEL: 51 03 33 eta 51 04 86

LEITZA

**MANDRILADORA
LEIZA**

S. Coop. Ltda.

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

LEIZA



Fabrika Geltokia A., z/g

Tel.: 510.262

LEITZA

CHAPA
PINTURA

GURIA KARROZERIAK
(P. KALDERON)

"REPARACION DE VEHICULOS. PINTADO EN
CABINA, SECADO AL HORNO"

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

TEL: 51 02 55

LEITZA

**TABERNA, ERRETEGIA
MENDIZABAL**

Txuleta eta bisigu erretan espezialitatea

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Elgoien, 22

Tel.: 510.128

LEITZA

Vda. de Lázaro Erviti

SERRERIA MECANICA

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Teléf. 51 00 08 LEITZA

**SAGASTI
TABERNA, JATETXEA**

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Tel.: 510.027

**ARIZTIMUÑO ANAIK
ERAIKINTZAK**

Lan orokorrak eta berrikuntzak

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Tel.: 510.374

LEITZA

GARAGE LEITZA

AMAZABAL, 29 KALEA

BEREBILL KLASE GUZTIETAKO
KONPONKETAK ETA EROSI SALDUKETAK
PEUGEOT-TALBOT AGENTZIA

TEL: 51 04 66

LEITZA

BIKOITZ

Gozotegia - Taberna

Tarta, pastel eta opiletan espezialitatea

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Elbarren, 16

Tel.: 510.072

LEITZA

**J. M. HERNANDORENA HUARTE
BARDINDENDA - GARBIGAI DENDA**

OPARIGAIK - GARRAIOA

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Tel.: 510.055

ASTIZ

LIBURUDENDA eta PAPERDENDA

Eskolarako eta kiroletarako gaiak

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Elbarren, 28

Etxeko tel.: 510.405

Astiz Zurgindegia, s. l.

Sukaldeko haltzariak eta oparigaiak
Pesta zoriontsuak opa dizkizue

Teléf. 51 02 85 Leitza

MAPFRE

MUTUALIDAD DE SEGUROS
Una organización a su servicio

Telefono: 51 04 99

Jai zorionsuak opa dizkizue

GURATZ-MENDI

K. K. J. ELKARTEA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elgoien, 1

LEITZA

GAZTELU ITURGINTZA, I.E.K.

Saneamendua — Kristaldegia
Oparigaiak
Berogailutarako egur sukaldetan
espezialistatea

Tel.: 510.086

Jai zoriontsuak opa dizkizue

KORNIETA ELKARTEAK

Jai zoriontsuak opa
dizkizue

LEITZA

RODRIGUEZ ETA ERASO LANTEGIA



RENAULT zerbitzua

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 510.259

Elgoien kalea, 15

Irurak

ARRANDEGIA

*Eguneko arrainak
mariskoak*

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 510.491

Elbarren K. LEITZA

JOSE ETXEBERRIA

GIZONEZKOENTZAKO
ILEAPAINDEGIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA Tel.: 510.282

"GARBI"

Garbigaidenda
Usaidenda eta
Jostailudenda

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 510.173



PERURENA HARATEGIA

Hemengo zekorretan
espezialitatea Urdaitegia

Tel.: 510.164

Jai zoriontsuak opa dizkizue



ERBITI AIZKORAK

Tomas Erbitiren alarguna
Aizkol txapelketetarako
aizkora garantizatuen fabrika

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 510.060

PLAZA Autoeskola AIALA Gestoria UNION LEVANTINA Aseguruak

Ordezkarria: Jose Mari Razkin

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Huarte Gotzaia K., 8

Tel.: 510.338

LEITZA

Electrodomesticos HARITZ

Reparaciones en general
Alta fidelidad
Videos etc

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 51 01 57 - 51 00 88

C/ Obispo Huarte - 2

Gregorio Sagastibelza

Constructor y Albañilería
en general

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 51 00 59

LEITZA

BASA-KABI HOTELA

Jatetxea, logelak
SNACK BAR

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZAKO GAINA

Tel.: 510.125

GAZTAÑAGA Taberna

Jose Antonio Escudero

Ogitartekoak, pintxo beroak, kaxuelak

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 51 04 34

ETXE - TRESNAK

ARGI-INDAR INDUSTRIALA
HIFI - TELEBISTA - BIDEO
BIDEO-KLUB
RADIO eta TELEBISTEN KONPOKETA
TELEBISTARAKO ANTENA JARTZEA
ELETRICIDAD INDUSTRIAL
T.V. - HIFI - VIDEO
VIDEO- CLUB
REPARACION DE RADIOS - TELEVISORES
INSTALACION DE ANTENAS DE T.V.

JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE

Urrutizkinak: 51 02 08 - 51 01 81

LEITZA (NAFARROA)

JOSE
MIGUEL
URKIOLA
ESNEKI AK

Jai zoriontsuak opa dizue

LEITZA

Cafetería

MAXARI

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elgoien, 6

LEITZA



CITROËN

SARALEGI

Jai zoriontsuak opa dizkizue

TEL. 510490

LEIZA

OIALDE
TABERNA

Bazkalurrekoak
eta ogitartekoak
Kafeak, ardoak
eta likoreak

jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel: 510.077

LEITZA



Construcciones
Azpiroz y Saralegui, S. L.

ETXAGINTZA
UR ERAKARPENAK
SANEAMENDUAK

JAI ALAI ETA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Teléfono 51 02 04 - LEITZA (Navarra)

**JOSE IGNACIO
ARZALLUS**

**Harategia - Urdaitegia
HEMENGO GAZTAK**

Jai zoriontzauak opa dizkizue

LEITZA
Tel.: 510.377

BERASTEGI
Tel.: 674.534

**KAFETEGIA
GOZOTEGIA
NEKANE**

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA

Liburudenda, kirolak

EUZKO

Oparigaiak, kirolgaiak, e.a.

Jai zoriontzauak opa dizkizue

Tel.: 510.054

Terraza eta balkoietakoko itxituak
Aluminiozko ate eta leiok: fabrika-
gintza eta azarketa



ALUBAN

Barañain aluminioak

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Barañaingo Industrialdea
Tel.: 570.059 **BARAÑAIN**
Tel.: 510.088 **LEITZA**
M. ULACIANAFARROA

LORETXO

**UME ETA
GAZTETXOENTZAKO
JANTZIAK**

"KATIA" ARTILEAK
Tiburtzio Deunaren festetan
egun alaiak opa dizkizue

Elbarren, 35. — **LEITZA**

**ARAKINDEGIA
JATETXEA**

Jai zoriontsuak
opa dizkizue

Tel. 510052

**ZURGINTEGIA
TOMAS ALKOZ**

"MARTIKO"

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

LEITZA

**Ignacio
Arrarás**

Bodegón · Vinos, Sidra
y licores

Cervezas El León

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 03 53

**Hermanas
Gómez**

Comercio de tejidos

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Teléfono 510130

LEITZATARRA Taberna

Gosariak, kasuelak, pintxo beroak, e.a.

Irekita goizeko 7etatik.

Tel.: 510.352

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

**J.A. URKIOLA
Harategia, Urdaitegia**

Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Tel.: 510.467

LEITZA

LANDA TABERNA

Giro jatorra musika ederra

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA


TXOKO
Taberna, Jatetxea
Ostatua, mantenu osoa

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Tel.: 510.277

Oparigaiak, kirolgaiak, e.a.

Tel.: 510.054




**zorionezko festak deneri
nafarroako aurrezki kutxa**

felices fiestas



CAJA DE AHORROS
DE NAVARRA



SARRIÓ

COMPañIA PAPELERA DE LEIZA, S. A.

Jai zoriontsuak opa dizkizue
Herriar eta bisatari guztiei

